



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

#EUSKADIBERRIA

Presupuestos **2025** Aurrekontuak

euskadi.eus

15. Elikadura, Landa Garapena, Nekazaritza eta Arrantza

15. Alimentación, Desarrollo Rural,
Agricultura y Pesca

- Euskadiko Kirol Portuak
- Neiker
- Hazi
- Elika





EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

#EUSKADIBERRIA

Presupuestos **2025** Aurrekontuak

euskadi.eus

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:
Un registro bibliográfico de esta obra puede consultarse en el catálogo de la Biblioteca General del Gobierno Vasco:
<https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua>

Argitaraldia / Edición: 1.a, 2025eko urtarrila / 1a, enero 2025

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa / Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco
Ogasun eta Finantza Saila / Departamento Hacienda y Finanzas

Internet: www.euskadi.eus


Argitaratzailea / Edita: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia / Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Aurkibidea / Índice :

15-ELIKADURA, LANDA GARAPENA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	
15-ALIMENTACIÓN, DESARROLLO RURAL, AGRICULTURA Y PESCA	5
Sekzioaren eta programen memoriak	
<i>Memorias de la Sección y de los Programas</i>	6
Gastuen egoera-orria	
<i>El Estado de Gastos</i>	73
5151 Portuak	
<i>Puertos</i>	74
5411 Nekazaritza eta Arrantza Alorreko Ikerk. eta Gara.	
<i>Investigación y Desarrollo Agropesquero</i>	78
5414 Berrikuntzarako Funtsa	
<i>Fondo de Innovación</i>	81
7110 Elikadura, Landa Garapena, Nekazaritza eta Arrantza. Egitura eta Laguntza	
<i>Estructura y Apoyo de Alimentación, Desarrollo Rural, Agricultura y Pesca</i>	82
7111 Nekazaritza eta Landaren eta Itsasertzaren garap.	
<i>Agricultura y Desarrollo Rural y Litoral</i>	85
7112 Arrantza	
<i>Pesca</i>	93
7113 Elikagaien Sustapena eta Kalitatea	
<i>Promoción y Calidad Alimentaria</i>	97
Sarrerren egoera-orria	
<i>El Estado de Ingresos</i>	100
5151 Portuak	
<i>Puertos</i>	101
5411 Nekazaritza eta Arrantza Alorreko Ikerk. eta Gara.	
<i>Investigación y Desarrollo Agropesquero</i>	102
7111 Nekazaritza eta Landaren eta Itsasertzaren garap.	
<i>Agricultura y Desarrollo Rural y Litoral</i>	103
7112 Arrantza	
<i>Pesca</i>	104
7113 Elikagaien Sustapena eta Kalitatea	
<i>Promoción y Calidad Alimentaria</i>	105
Gastuen laburpenak	
<i>Resúmenes de Gastos</i>	106
Sarrerren laburpenak	
<i>Resúmenes de Ingresos</i>	113
ENTE, SOZIJETATE ETA FUNDAZIO PUBLIKOAK	
ENTES, SOCIEDADES Y FUNDACIONES PÚBLICAS	115
Euskadiko Kirol Portuak	
<i>Euskadiko Kirol Portuak</i>	116
Neiker SA	
<i>Neiker, S.A.</i>	136
HAZI Fundazioa	
<i>Fundación HAZI</i>	158
ELIKA Fundazioa	
<i>Fundación ELIKA</i>	178



15-ELIKADURA, LANDA GARAPENA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA
15-ALIMENTACIÓN, DESARROLLO RURAL, AGRICULTURA Y PESCA



Sekzioaren eta programen memoriak
Memorias de la Sección y de los Programas



ELIKADURA, LANDA GARAPENA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA **ALIMENTACIÓN, DESARROLLO RURAL, AGRICULTURA Y PESCA**

Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila

Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren misioa da lehen euskal sektorea eta haren balio-kateak eragile ekonomiko lehiakor eta jasangarri bihurtzea, lurraldean finkatuta eta gaitasun gastronomikoei esker indartuta. Gainera, legegintzaldi honetan, portuen kudeaketaren eta itsasertzaren garapen eta antolamenduaren eremuko eskumenak eta erantzukizunak gehitu dira.

Ez da ukatu behar planeta osoko harreman sozial eta ekonomikoek dituzten ziurgabetasun eta tentsio geopolitiko askok bete-betean eragin dutela nekazaritzako elikagaien eta lehen sektoreko ekoizpenean.

Gure ongizaterako oinarritzko produktuen eta zerbitzuen kanpo-mendekotasuna agerian jarri da, eta irakaspen honek gure etorkizuneko garapena bermatzeko erabakiak hartzea eta jokabideak aldatzea dakar.

Sailak gobernu-programan ezarritako helburu estrategikoak lortzeko estrategia finkatzen du, eta, bereziki, honako hauek azpimarratzen ditu:

- Belaunaldien arteko erreleboa bultzatzea.
- Sektoreari errentagarritasuna eta lehiakortasuna ematea.
- Bizi-kalitatea ematea eta landa-ingurunekeo gizartea ahalduntzea.
- Lehen sektoreko jarduera ekonomikoaren eta arrantzaren jasangarritasuna eta berrikuntza indartzea.

Ezinbestekotzat jotzen dugu gobernantza-eredu irekia, lankidetzaren publiko-pribatukoa eta sare-lanekoa ezartzea.

Giza faktorean eta bere gaitasunean sinesten dugu, norbanakotik, baina, batez ere, kolektibotik, erakundeetatik.

Horregatik, gure eredu eragile askoren adostasunean eta parte-hartzean oinarritzen da, guztion artean ekosistema ireki, aktibo eta propositibo bat eraikiz, konplizitateak sortuz eta administrazioaren baliabideak eta sektore pribatuaren gaitasunak ahalik eta gehien optimizatuz.

Departamento de Alimentación, Desarrollo Rural, Agricultura y Pesca

El Departamento de Alimentación, Desarrollo Rural, Agricultura y Pesca asume como misión propia la de convertir al primer sector vasco, y a sus cadenas de valor, en un agente económico competitivo y sostenible, asentado en el territorio y fortalecido gracias a sus capacidades gastronómicas. Además, en esta legislatura se incorporan competencias y responsabilidades en el ámbito de la gestión portuaria y el desarrollo y ordenación del litoral.

No hay que negar que toda una serie de incertidumbres y tensiones geopolíticas que registran las relaciones sociales y económicas de todo el planeta han incidido de lleno en el plano agroalimentario y en el productivo del primer sector.

La dependencia exterior de productos y servicios básicos para nuestro bienestar se ha puesto en evidencia y esta lección supone tomar decisiones y modificar comportamientos de cara a garantizar nuestro futuro desarrollo.

El Departamento fija su estrategia en la consecución de los objetivos estratégicos establecidos en el programa de gobierno, y en particular incide en los siguientes:

- Impulsar el relevo generacional.
- Dotar de rentabilidad y competitividad al sector.
- Otogar calidad de vida y empoderar a la sociedad del medio rural.
- Reforzar la sostenibilidad e innovación de las actividades económicas del primer sector y de la pesca.

Consideramos imprescindible establecer un modelo de gobernanza abierto, de colaboración público-privada y de trabajo en red.

Creemos en el factor humano y en su capacidad desde lo individual, pero sobre todo en lo colectivo, desde las organizaciones.

Por ello, nuestro modelo está basado en la concertación y la participación de muchos agentes, construyendo entre todas y todos un ecosistema abierto, activo y propositivo, generando complicidades y optimizando al máximo los recursos de la administración y las capacidades del sector privado.

Elikagaien geopolitika eta lehengaien nazioarteko merkataritza beti egon dira. Baina, COVID-19aren ondorioz, eta, batez ere, Ukrainaren inbasioaren eta ondorengo inflazio-fenomenoaren, hornikuntzaren eta lehengaien eta energiaren kostuetako gorabeheren ondoren, nabarmenagoak eta aurreikusi ezinezkoak bihurtu dira.

Duela urte batzuetatik hona, paradigma-aldaketa bat egiaztatu da, eta balio-kateko eragile guztiek, neurri handiagoan edo txikiagoan, ezegonkortasun iraunkorreko egoera batera egokitu behar dute.

Eragile berriak dira: inbertsio-funtsen presentzia, gero eta handiagoa den biztanleriarentzako elikagai-eskaera handiagoa, baliabide erabilgarri gutxiago, klima-aldaketa eta horrek elikagaien ekoizpenean dituen ondorioak, sektorearen zahartzea, adimen artifizialarekin sartzeko teknologiko bizkorra, kontsumo segmentatua, doitasunezko nekazaritzaren aukerak, ekonomia zirkularra eta bioekonomia termikoa, etab.

Balio-katearen ikuspegiarekin lan egitea apustu politiko eta publikoa izan da azken legegintzaldietan.

Nahitaezko apustua da, eta berretsi egiten dugu horretan lan egiten jarraitzeko asmoa: izan ere, hainbat operadorearen arteko lan-ildo hori indartzeak eta garatzeak emaitza nabariak ahalbidetzen dituelako, sinergiak aprobetxatzeari, eraginkortasuna, kohesioa, aliantzak adosteari, berrikuntza eta eraldaketa teknologikoei dagokienez, eta hori guztia, zalantzarik gabe, balio erantsia sortzeari dagokionez.

Hurrengo ataletan, gobernuaren ekintza estrategikoa zehazten da hainbat jardueraren eremutan.

Nekazaritza eta Abeltzaintza

Bat gatoz NPBren egungo esparruak ez duela behar bezala jaso lehen sektorearen egoera. Autonomia handiagoa behar da Nekazaritza Politika Bateratua aplikatzeko. Euskadik bere plan estrategiko propioa izateko eskubidea eta beharra defendatuko du, gure lurraldearen ezaugarri, behar eta eskarietara egokitu dena.

Aldi berean, Ministerioari eta Europako Batzordeari gure errealitatera hobeto egokitutako Nekazaritza Politika Bateratua bideratzen lagunduko dieten jarduerak garatuko ditugu, merkaturak ditugun produktuek eskakizun komertzial berdinak izan ditzaten.

Nekazaritzaren arloan dugun helburua argia, beharrezkoa eta anbizio handikoa da, eta beste eremu batzuk ere zabal daitezke: lehen sektorearen errentagarritasuna eta lehiakortasuna hobetzea.

- Nekazaritza-dibertsifikazioa bultzatuko dugu, balio handiagoko labore estrategikoetan arreta berezia jarrita, hala nola hazitarako patatan (sektorearekin eta AFArekin lankidetzan), milioi bat euroko programa espezifiko baten bidez, edo berotegietako ekoizpenerako hobekuntza teknologikoan, Handitu Innova lerroaren bidez.

- Sektorearekin egindako bileren ondoren, inbertsio pribatuko neurrien orria eta laguntzeko politika publikoak (haragitarako behiak eta laborantza estentsiboak) edukitzeko aukera emango diguten plan sektorialak berreskuratzeko eskaera jaso dugu.

La geopolítica alimentaria y el comercio internacional de materias primas siempre han existido. Pero, a raíz de la covid19 y, sobre todo, tras la invasión de Ucrania y el posterior fenómeno de inflación, el aprovisionamiento y las fluctuaciones en los costes de las materias primas y energéticos, se han vuelto más relevantes e imprevisibles.

Se constata desde hace unos años un cambio de paradigma, donde todos los agentes de la cadena de valor se deben adaptar, en mayor o menor grado, a una situación de inestabilidad permanente.

Se trata de nuevos operadores: presencia de fondos de inversión, mayor demanda de alimentos para una población en aumento, menores recursos disponibles, cambio climático y sus consecuencias en la producción de alimentos, envejecimiento sectorial, una irrupción tecnológica acelerada con la inteligencia artificial, el consumo segmentado, las oportunidades de la agricultura de precisión, la economía circular y la bioeconomía, etc.

El trabajo con el enfoque cadena de valor ha sido una apuesta política y pública en las últimas legislaturas.

Una apuesta obligada y donde nos reafirmamos en el propósito de seguir trabajándola: porque fortalecer y desarrollar esta línea de trabajo entre diferentes operadores, permite resultados palpables en aprovechamiento de sinergias, en eficiencia, en cohesión, en concertación de alianzas, en innovación y transformaciones tecnológicas, e indudablemente todo ello en generación de valor añadido.

A lo largo de los siguientes apartados se detalla la acción estratégica del gobierno en diferentes ámbitos de actuación.

Agricultura y Ganadería

Compartimos que el actual marco de la PAC no ha contemplado de manera acertada la coyuntura del primer sector. Es precisa una mayor autonomía para la aplicación de la Política Agraria Común. Euskadi defenderá el derecho y la necesidad de tener un plan estratégico propio, que se adapte a las características, necesidades y demandas de nuestro Territorio.

En paralelo desarrollaremos actuaciones que ayuden al Ministerio y a la Comisión Europea a conducir una Política Agraria Común más ajustada a nuestra realidad y que trabaje por la igualdad de exigencias comerciales a nuestros productos en el mercado.

Nuestro objetivo en el ámbito agrario es claro, necesario y ambicioso, y también extensible a otros ámbitos: la mejora de la rentabilidad y competitividad del primer sector.

- Apoyaremos la diversificación agraria, con un foco especial en cultivos estratégicos de mayor valor, como es el caso de la patata de siembra (en colaboración con el sector y la DFA) con un programa específico de 1 millón de euros, o la mejora tecnológica para la producción en invernaderos a través de la línea Handitu Innova.

- Recogemos tras las reuniones con el sector la demanda de recuperar la elaboración de planes sectoriales que nos permitan disponer de una hoja de medidas de inversión privada y políticas públicas de acompañamiento, empezando por el vacuno de carne y los cultivos extensivos.

- Kudeaketa Zentroen eta sozietate publikoen bidez sektoreari emandako zerbitzuak optimizatuko ditugu, bereziki, ustiatzeen teknifikazioari, doitasuneko nekazaritzari eta aholkularitzari lotutako erronkei aurre egiteko.
- Lehenengo sektorerako finantza-tresna bat jarriko dugu martxan, Ogasun eta Finantza Sailarekin lankidetzan, premia dagoenean ustiatzei likidezia emateko.

Belaunaldien arteko berdintasuna eta ekintzaitzeta

Funtsezkoa izango da lau urte hauetan belaunaldi-erreleboaren arloan dugun egoera larria arintzea.

Jarduera horrekiko atxikimendurik eza, sartzeko zailtasuna, gazteentzako errentagarritasunik edo erakargarritasunik eza eta abar direla eta, aktibo berriak sartzea motela eta zaila da.

Hori da legegintzaldi honetako helburu nagusietako bat, eta, horretarako, estrategia integral bat hedatuko dugu, aldundiekin lankidetzan, erronka horri aurre egiteko.

Neurri aipagarri gisa:

Hasiera batean, funtsezkoa da gizarteak eta gazteek nekazaritzarekiko eta abeltzaintzarekiko duten interesa aktibatzea. Bokazioa alde batera utzita, sektore honetan oso garrantzitsua da ilusioa, monitorizazioa, finantzaketa, profesionalizazioa eta digitalizazioa erakarpen-elementuak izatea.

Ekintza sorta bat garatuko dugu, alde batetik, ustiatzei laguntzeko zerbitzuak hobetzeko eta nekazaritza- zein abeltzaintza-jardueraren balioak eta erakargarritasunak ezagutarazteko, baita horien inguruan sentsibilizatzeko ere. Ekintza horiek sektorea duin bihurtuz ere lan egingo dute, benetakotasun-kontakizun baten bidez.

Horrekin batera, beste ekintza batzuk egingo ditugu, hala nola:

- Gazteei laguntzeko, mentoring egiteko eta laguntza-programak.
- Nekazari profesionala eta, bereziki, gazte berriak sartzen lagunduko duten arau-aldaketak eta laguntza-ildoak.
- Lurra, azpiegitura eta ekipamendua eskuratzeko mekanismoak, honako hauen bidez:

Ustiatzeietako egoitzak, hurbiltzeko eta ikasteko prozesuak erraztuz.

Nekazaritza-lurren banku estrategikoak, Europako ekimenei jarraiki, hala nola SAFER Frantzia.

Edo titulartasuna eskualdatzeko tresnak gaituz, aurre-erretiroak erreleboarekin, integrazio dualak, lanaldi-murrizketak beste enplegu batzuetan nekazaritzan aritzeko edo finantza-mekanismoen bidez.

- Optimizaremos los servicios facilitados al sector a través de los Centros de Gestión, y las sociedades públicas, en especial, para abordar los retos asociados a tecnificación de las explotaciones, agricultura de precisión y asesoramiento.

- Pondremos en marcha un instrumento financiero para el primer sector, en colaboración con el Departamento de Hacienda y Finanzas que permita dotar de liquidez a las explotaciones en momentos de necesidad.

Relevo generacional y emprendimiento

Será clave en estos cuatro años paliar la grave situación que tenemos en materia de relevo generacional.

La desafección por esta actividad, la dificultad de acceso, la falta de rentabilidad o de atractivo para los jóvenes, todo ello hace que la incorporación de nuevos activos sea lenta y difícil.

Este es un objetivo troncal de esta legislatura, y para ello desplegaremos una estrategia integral, en colaboración con las Diputaciones, para abordar este desafío.

Como medidas destacadas:

Inicialmente es clave activar el interés social y de la juventud por la agricultura y la ganadería. Mas allá del hecho vocacional, muy importante en este sector, la ilusión, la monitorización, la financiación, la profesionalización y la digitalización son elementos de atracción.

Vamos a desarrollar una batería de acciones encaminadas por una parte a mejorar los servicios de apoyo a las explotaciones y de sensibilización y divulgación de los valores y atractivos de la actividad agraria y ganadera, acciones que trabajen también dignificando el sector, y a través de un relato de autenticidad.

Esto lo acompañaremos de otras, acciones como:

- Programas de acompañamiento, mentoring y apoyo a la persona joven.
- Cambios normativos y en las líneas de ayudas que favorezcan la figura del agricultor profesional, y en especial, la entrada de nuevas personas jóvenes.
- Mecanismos de acceso a la tierra y a las infraestructura y equipamiento, mediante:

Residencias en explotaciones, favoreciendo procesos de acercamiento y aprendizaje.

Bancos de suelo agrarios estratégicos, siguiendo iniciativas europeas como el SAFER en Francia.

O habilitando instrumentos de traspaso de la titularidad, prejubilaciones con relevo, integraciones duales, reducciones de jornada en otros empleos para su dedicación al agro o a través de mecanismos financieros.

Legegintzari dagokionez, gure asmoa da nekazari gazteen estatutua arautzen duen dekretua aldatzea, planteamendu horietara bideratzeko, gainerako erakunde eta antolakundeekin adostuta.

Tokiko, iraunkortasuneko eta kalitateko elikadura

Elikagaien industriak erronka garrantzitsuak ditu. Lehiakortasuna izaera horizontaleko bat da, baina beste batzuk ere badaude, hala nola produkzio-kostuak, prestakuntza eta lan-absentismoa.

Horrez gain, industriak tokiko produktuaren berezko trakzio-gaitasunak ditu, eta askotan ez dira aprobetxatzen.

Katearen ikuspegiarekin, elikaduraren eremuan honako hauek jorratu nahi ditugu:

- Elikadura ekologikoa bultzatzea, FOPE (ekoizpen eta elikadura ekologikoa sustatzeko plana) berria diseinatuz eta ezarriz.
- Kalitatearen eta tokiko produktuaren aldeko apustua, kalitate bereiziko produktuetan eta elikagaietan dauden familiak indartzuz, hala nola Eusko Label, eta ziurtatutako beste figura batzuk, jatorri-deiturak, besteak beste.
- Elikagaien xahuketa murriztea eta, horrekin lotuta, azpiproduktuak garatzea ekonomia zirkularraren arloan Eusko Jaurilaritzak duen estrategia komun baten barruan.
- Prestakuntza eta ekintzaitza gehiago aktibatzea, beken eta ezarpen berriei laguntzeko zerbitzuen bidez, eta ekipamendu eta zentroekin, hala nola etorkizuneko Euskadiko elikagaien BICa, Ortuellan kokatuko dena, edo etorkizuneko elikagaien berrikuntzarako GOE zentroa, Donostian.

Araudiari dagokionez, hurbileko salmenta arautzen duen Dekretuaren inplementazioari ekingo diogu, bai baldintza higieniko-sanitarioei, trazabilitateari, etiketatzeari eta publizitateari dagokionez, bai salmentarako baldintza fisikoei dagokionez.

Mahastizaintza eta ardogintza, berregituraketa

Eusko Jaurilaritzak Euskadiko edarien eta upeltegien sektorearen errealitatea ezagutzen du. Izan ere, esportazioen eta balio erantsi gordinaren sorreraren ehuneko handiena duen sektorea da.

Oso sektore anitza da, familia eta errealitate desberdinak dituena: txakolina, sagardoa, artisau-garagardoa, destilatuak eta Arabako Errioxako ardoa. Horietako askok egoera konplexua dute, errentagarritasunari eta merkaturatzeko zailtasunari dagokionez.

Legegintzaldiko programan, harreman-esparruak antolatuko ditugu sektorearen premia beharrei erantzuteko, batez ere, Arabako Errioxako ardoari dagokionez, laguntza behar duen egiturazko egoera bizi baitu.

Horrela, zehazki:

A nivel legislativo, nuestra intención es abordar la modificación del decreto que regula el estatuto de los jóvenes agricultores, para orientarlo a estos planteamientos y de una manera consensuada con el resto de las instituciones y organizaciones.

Alimentación local, sostenible y de calidad

La industria alimentaria tiene retos importantes. La competitividad es uno de carácter horizontal, pero existen otros como los costes de producción, la formación, el absentismo laboral.

Además de ello, la industria tiene unas capacidades inherentes de tracción del producto local que en muchas ocasiones no son aprovechadas.

Con el enfoque de cadena pretendemos en el ámbito de la alimentación abordar:

- El impulso a la alimentación ecológica, mediante el diseño e implementación de un nuevo FOPE (plan para el fomento de la producción y alimentación ecológica).
- La apuesta mantenida por la calidad y el producto local, reforzando las familias existentes en productos y alimentos con calidad diferenciada, como Eusko Label, y otras figuras certificadas como las denominaciones de origen.
- La reducción del despilfarro alimentario y, vinculada a ella, el desarrollo de subproductos dentro de una estrategia común del Gobierno Vasco en materia de economía circular.
- Una mayor activación de la formación y del emprendimiento, con becas, y servicios de apoyo a nuevas implantaciones, y con equipamientos y centros como el futuro BIC alimentario de Euskadi que se ubicará en Ortuella, o el futuro centro de innovación alimentaria GOE en Donostia.

A nivel normativo, abordaremos la implementación del Decreto que regula la venta de proximidad, tanto en las condiciones higiénico-sanitarias, de trazabilidad, etiquetado y publicidad, como en las condiciones físicas para la venta.

Sector vitivinícola, reestructuración

El Gobierno Vasco conoce la realidad del sector de las bebidas y bodegas de Euskadi. De hecho, es el sector con mayor porcentaje de exportación y de creación de Valor Añadido Bruto.

Un sector muy diverso, con diferentes familias y realidades, txakoli, sidra, cerveza artesanal, destilados, y el vino de Rioja Alavesa: Muchos de ellos comparten una situación compleja, en términos de rentabilidad y de dificultad en la comercialización.

En el programa de legislatura articularemos marcos de relación para atender a necesidades urgentes del sector, principalmente en lo referente al vino de Rioja Alavesa, que atraviesa una coyuntura estructural que requiere de apoyo.

Así, de manera concreta:

- Mugaz gaindiko euskal Sagardoa BJD berria ezarriko dugu, eta sektoreari jasagarritasuna bermatzeko laguntza emango diogu, batez ere, sagardogile txikientzat.

- Ikerketa eta klima-aldaketara egokitzeko proiektuekin jarraituko dugu.

- Eta, bereziki, Arabako Errioxan, eta iragarri dugun bezala:

Lankidetzaren publiko-privatutik eta erakundearteko lankidetzatik sortutako ibilbide-orri bat sustatuko dugu, politika publikoak lerrokatzea ahalbidetuko duten egiturazko neurriak ahalbidetuko dituena.

Kalitatea, bereizketa eta posizionamendu hobea sustatzeko neurriak babestea.

Ad hoc ekintzak, barne-merkatuetan zein nazioartekoetan sustapenari eta merkaturatzeari dagokionez, goraka ari diren nazioarteko merkatuetarako azoketan, laguntzetan eta misioetan (EE. UU., Japonia, Mexiko, Suitza eta Erresuma Batua).

Eta zeharka:

- Sektorea koordinatzeko eta laguntzeko ARDOA Basque Wine Office bulegoari orientazio berria emango zaio.

- Ministerioarekin eta EBekin lan egingo da, ardoaren esku-hartze sektorialaren laguntza-programaren aplikazioa arintzeko, malgutzeko eta banaketa-irizpideak aldatzeko.

Hori guztia, gainera, EDAko bi zentro berrien eraikuntzarekin indartuta, Basque Culinary Center-ekin eta Arabako Foru Aldundiarekin lankidetzan. Azken horrek berrikuntzaren eta prestakuntzaren aldeko apustua egingo du; Guardiako, ardoetan eta Gasteizko, edarietan. Biak ala biak, nazioartean kokatzeko asmo argiarekin.

Zura, etorkizuneko material jasagarria

Basogintzak eta zurgintzak, euskal lurraldean ezarpen zabala izateaz gain, oso kanpo-eragin positiboak ditu biodibertsitateari, paisaiari eusteari, karbonoa finkatzeari, lurzoruari eta abarri dagokionez.

Egurra eraldatzeko industria etengabe bilakatzen eta egokitzen ari da, eta balio erantsia sortzeko gaitasun handia du.

Euskadin badira punta-puntako enpresak, nazioartean kokapen komertzial ona dutenak, baina oraindik ere ekosistema babestu bat behar dute, bai kalitatean, bai balioan hazten jarraitu ahal izateko.

Sektoreak duen garrantziaz jabetu behar dugu, askotan kritikatur baitago, eta horri esker material iraunkorra eta etorkizuneko daukagu. Horregatik, hezkuntzaren eremuan lan egingo dugu, baita gizartearen aurrean ere.

- Implementaremos la nueva DOP transfronteriza Euskal Sagardoa, y un apoyo al sector para garantizar su sostenibilidad, sobre todo para pequeños sagardogiles.

- Continuaremos con proyectos de Investigación y adaptación al cambio climático.

- Y, especialmente, en Rioja Alavesa y como ya hemos anunciado:

Fomentaremos una hoja de ruta nacida desde la colaboración público-privada e interinstitucional, que habilite medidas estructurales que permita alinear las políticas públicas.

Respaldo a medidas tendentes a fomentar la calidad, la diferenciación y un mejor posicionamiento.

Acciones ad hoc tanto en promoción como en comercialización en mercados internos como Internacionales, en ferias, ayudas y misiones a mercados internacionales en auge (EE. UU., Japón, México, Suiza y Reino Unido).

Y de manera transversal:

- Se dotará de una nueva orientación a la oficina para la coordinación y apoyo al sector, ARDOA Basque Wine Office.

- Se trabajará con el Ministerio y la UE para la agilizar y flexibilizar la aplicación del programa de ayudas de la Intervención Sectorial del Vino y modificar los criterios de reparto.

Todo ello, además, reforzado por la construcción de los dos nuevos centros de EDA, en colaboración con el Basque Culinary Center y la Diputación Foral de Araba, que, apuesta por la innovación y formación, el de Laguardia en vinos y el de Gasteiz en bebidas. Ambos, con una clara vocación de posicionamiento internacional.

Madera, material sostenible del futuro

El sector forestal y de la madera, tiene, además de una amplia implantación en el territorio vasco, externalidades muy positivas en cuanto a biodiversidad, mantenimiento del paisaje, fijación de carbono, de suelo, etc.

La industria de transformación de la madera continúa en evolución y adaptación, y presenta una capacidad de generar valor añadido muy importante.

En Euskadi existen empresas punteras y con buen posicionamiento comercial internacional, pero que aún requieren de un ecosistema cobijo, que les permitan seguir creciendo tanto en calidad como en valor.

Debemos ser conscientes de la importancia del sector, muchas veces criticado, y que, gracias a él disponemos de un material sostenible y de futuro. Por esta razón, trabajaremos en el ámbito educativo y también ante la sociedad en general.

Eraikuntzan zuraren erabilera sustatzeak aukera ematen du, Euskadin CO2 gehiago biltegitratzeko ez ezik, gaur egun gehiago erabiltzen diren eta beren fabrikazioan karbono-isuri handiak sortzen dituzten beste material batzuk ordeztzeko ere.

Sektorearekin lan egingo dugu karbono-merkatuak sustatzeko, etorkizunean diru-sarrerak lortzeko bide gisa.

Eta ekimen nabarmen gisa, honako hauetan aurrera egiten jarraitu nahi dugu:

-Ziurtapen-prozesuak eta horiek hobetzeko aukerak.

-Especie erresistenteak ikertzeko eta enbriogenesi somatikoaren bidez erreplikatzeko proiektuak, eta, horrekin batera,

-Mendigunea hobeto ezagutzea, eraikiko dugun Basodata aplikazioaren bidez.

Industriaren zatiari dagokionez:

-Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuekiko (Etxebizitza eta Hezkuntza) lankidetzaren eta sustapenaren bidez, zuraren erabilera intentsiboa bultzatuko dugu eraikin publikoen eraikuntzan, eta

-Eraldaketa-industriari ere lagunduko diogu, sustapen-ekintzetan eta merkataritza-misioetan.

Arrantza-sektorea eta lotutako industria

Bestalde, arrantza-sektoreak eta haren industria elkartuak gizarte aldakor baten erronka berrietara egokitu behar dute.

Deskarbonizazioa, prozesuen digitalizazioa, kontsumo-ohitura berriak, batez ere gazteen artean, eta hori guztia jasangarritasunaren premisapean. Horrek ausardia handia eta aldaketak eskatuko ditu arrantza-baliabideak kudeatzeko moduan eta arrantza-produktuak kontsumitzaileari helarazteko moduan.

Hori guztia, jarduera ekonomikoaren benetako eragileak diren pertsonak ahaztu gabe, eta itsasoko gizonen eta emakumeen belaunaldi-erreleboa bermatzeko beharra ahaztu gabe.

Balio-kate osoari laguntzeko lanean, funtsezko ekimen hauek garatuko ditugu, besteak beste:

- Lehenik eta behin, ahalik eta ezagutzarik onena bultzatuko dugu, arrantza-flota moderno eta erresiliente batek arrantza-baliabideen kudeaketa arrazional eta iraunkorra egin dezan.

- Era berean, merkaturatze- eta eraldaketa-sektorearekin elkarlanean arituko gara, bere prozesuak eta produktuak kontsumitzaileen eskakizun berrietara egokituz.

El fomento de la utilización de madera en construcción permite, no sólo un mayor almacenamiento de CO2 en Euskadi, sino la sustitución de otros materiales más utilizados en la actualidad que producen altas emisiones de carbono en su fabricación.

Trabajaremos con el sector en impulsar los mercados de carbono, como vía de ingresos en el futuro.

Y como iniciativas destacadas, queremos seguir avanzando en:

-Procesos de certificación y las posibilidades de mejora de éstos.

-Proyectos de investigación en especies resistentes y su replicación a través de la embriogénesis somática y, unido a ello,

-Un mayor conocimiento del macizo a través de la aplicación Basodata que vamos a construir.

En relación con la parte de la industria:

-Daremos apoyo, mediante el fomento y la colaboración con otros departamentos de Gobierno Vasco (Vivienda y educación), al uso intensivo de la madera como material en la construcción de edificios públicos, y

-También mantendremos nuestro apoyo a la industria de transformación en acciones de promoción y en misiones comerciales.

Sector pesquero e industria asociada

Por su parte, el sector pesquero y su industria asociada deben adaptarse a los nuevos retos de una sociedad cambiante.

La descarbonización, la digitalización de procesos, los nuevos hábitos de consumo sobre todo de los más jóvenes, y todo ello bajo la premisa de la sostenibilidad, que va a requerir de mucha audacia y cambios en la manera tanto de gestionar los recursos pesqueros como en la manera de hacer llegar los productos pesqueros al consumidor.

Todo ello sin olvidarnos de las personas, verdaderos motores de la actividad económica, y de la necesidad de asegurar el relevo generacional tanto de los hombres como de las mujeres del mar.

En nuestra labor de acompañamiento a toda la cadena de valor, desarrollaremos, entre otras, las siguientes iniciativas clave:

- En primer lugar, potenciaremos el mejor conocimiento posible, para una gestión racional y sostenible de los recursos pesqueros realizada por una flota pesquera moderna y resiliente.

- De la misma manera colaboraremos con el sector comercializador y transformador adaptando tanto sus procesos como sus productos a las nuevas exigencias del consumidor.

- Horretarako, arrantza-sektorea hobeto egituratzea bilatuko dugu, Gipuzkoako eta Bizkaiko baxurako arrantza-erakundeen fusioa bultzatuz, eta Euskadiko baxura ordezkatzeko duen erakunde bakar eta sendo bat sortuz.

- Belaunaldien arteko erreleboa bultzatuko dugu, sektorean sartzen diren gazte berrientzako ITSASORATU eta saregileen kolektiboari laguntzeko SARETZEN programen bidez.

- Euskadin ontzidiaz mantentzeko eta errotzeko plan bat egin eta diruz hornituko dugu. Plan horri esker, kuotari eutsi ahal izango diogu, eta gure erkidegotik kanpo itsasontziak saltzea saihestu.

- Bultzada handia emango diogu gure merkaturatze- eta eraldaketa-industriak egindako inbertsioei, Lehiatu Arrantza laguntza-programa berri baten bidez.

- Eta, azkenik, aurrera egingo dugu gure lurraldean balio ekonomikoa sortuko duten akuikultura-proiektu berrietan.

- Para ello, buscaremos una mejor estructuración del sector pesquero apoyando la fusión de las Organizaciones Pesqueras de bajura de Gipuzkoa y Bizkaia, y creando una única y fuerte organización que represente a la bajura de Euskadi,

- Potenciaremos el relevo generacional a través de programas como ITSASORATU para nuevos jóvenes que se incorporen al sector, y SARETZEN de apoyo al colectivo de las rederas.

- Elaboraremos y dotaremos económicamente un Plan para el mantenimiento y arraigo de la flota en Euskadi, que permite mantener cuota y evitar la venta de barcos fuera de nuestra Comunidad.

- Daremos un importante impulso al apoyo de las inversiones realizadas por nuestra industria de comercialización y transformación a través de un nuevo programa de ayudas Lehiatu Arrantza.

- Y, finalmente, avanzaremos en nuevos proyectos de acuicultura que generen valor económico en nuestro territorio.

Landa-garapena

Landa-garapenarekin jarraituz, legegintzaldiko helburu nagusia da landa-eremuan pertsonak eta haien bizi-kalitatea arretaren erdigunean jartzea.

Erein eta Leader laguntza-programak erreferenteak dira herrietako oinarrizko zerbitzuak mantentzeko eta hobetzeko, baita gure landa-inguruneke jarduera ekonomikoa biziberritzeko ere.

Horiei, landa-inguruneke ekintzailetzarekin lotutako jarduerak eta lehenetsuneko jarduketa-eremuetara bideratutako ekintzak gehituko dizkiegu.

Gure konpromisoak lurralde-garapena orekatzeko eta landa-inguruneke biztanle guztiarentzako etorkizun iraunkorra, ekitatiboa eta oparoa ziurtatzeko premiari erantzuten dio. Eta, horretarako, honako hauek nabarmendu behar ditugu:

- Landa Smart Proiektua: helburu orokorra da herriak sustatzea eta inspiratzea ikuspegi eta estrategia adimendunak gara eta aplikatu dituzten ezagutzaren trukearen bidez.

- Landa-inguruneke banku-zerbitzuen programa, 2,5 milioi eta 4 urte bitarteko zuzkidurarekin, landa-eremuetan kutxazainak eta landa-saltokietako eskudirua ateratzeko zerbitzuak jartzeko.

- Horrez gain, Adinekoen Arretarako BEROSI Programa dago. Programa horretan, adinekoen ohiko premiei erantzungo dieten programa espezifikoak ezarriko ditugu, haien bizi-kalitatea eta hurbileko zerbitzuetarako sarbidea bermatuz.

- Emakumeen ahalduntzea landa-eremuan: emakumeek ekonomian eta landa-bizitzan parte-hartze aktiboa izatea sustatzen duten programak.

Desarrollo rural

Continuando con el Desarrollo rural, el objetivo principal de legislatura versa en colocar en el centro de atención a las personas y su calidad de vida en el mundo rural.

Los programas de ayuda Erein y Leader, son referentes en el mantenimiento y mejora de servicios básicos en los pueblos, así como en lo relativo a la revitalización de la actividad económica de nuestro medio rural.

A ellos, sumaremos actuaciones relacionadas con el emprendimiento en el medio rural, y acciones dirigidas a las zonas de actuación prioritaria.

Nuestro compromiso responde a la necesidad de equilibrar el desarrollo territorial y asegurar un futuro sostenible, equitativo y próspero para todas y todos los habitantes del medio rural. Y para ello se destacan:

- Proyecto Smart Rural: el objetivo general es promover e inspirar a los pueblos para que desarrollen y apliquen enfoques y estrategias inteligentes a través del intercambio de conocimiento.

- Programa de servicios bancarios en el medio rural, con una dotación de 2,5 millones a 4 años, para dotar las zonas rurales de cajeros y de servicios retirada de efectivo en comercios rurales.

- A lo que se suma el Programa BEROSI, de atención a las Personas Mayores: Donde implementaremos programas específicos que respondan a las necesidades ordinarias de las personas mayores, garantizando su calidad de vida y acceso a servicios cercanos.

- Empoderamiento de la Mujer en el Mundo Rural: programas que promuevan la participación activa de las mujeres en la economía y la vida rural.

Etorbizuneko arau-garapenei dagokienez, aurreikusita dago Landa Garapeneko Euskal Sarea definitzea eta arautzea. Sare horrek lurraldeko erakundeen eta eragileen arteko lankidetzaz sustatu nahi du, esperientzien trukea eta konponbide komun posibleak sortzea sustatuz, eta Lurralde Garapeneko Plana onartzea, garatuko diren Landa Garapeneko Eskualde Plan guztiei estaldura eta gidalerroak emango dizkiena.

Portu-eremuak eta itsasertzaren garapena

Itsasertzaren garapenari eta portu-espazioen kudeaketari dagokienez: legegintzaldi honetan garrantzitsua da gure itsasertzaren ekonomia urdina bultzatzea eta portu-instalazioak ekonomia- eta gizarte-behar berrietara egokitzea.

Itsasertza Garatzeko Euskal Estrategia berriak itsas sektorearekin lotutako negozio-aukerak identifikatuko ditu, eta, horretarako, egungo portu-instalazioak epe laburrean ikusten dugun errealitate berrira egokitu beharko dira.

Descarbonizazioa, itsas bioteknologia, turismo jasagarria, biodibertsitatea berreskuratzea, arrantza, akuikultura, azken batean, gure portuak alferrik galdu behar ez ditugun aukera ekonomikoan «hubs» bilakatzen dituzten jarduerak dira.

Egiteke dauden Portuetako Plan Berezien idazketa ere amaituko da, eta, era berean, udal-administrazioen eta tokiko eragileen eskutik, Portuetako Udal Kontseiluak sortuko dira.

Sail honen asmoa da Mutrikuko Portuko Udal Kontseilua eratzearekin hastea. Kontseilu horrek, besteak beste, babes-dikea sendotzea izango du helburu, bai eta Ondarroa eta Bermeoko izotz-fabrikak eta Bermeon lehorreratzeko orga eraikitzea ere.

Gainera, Arrantza eta Akuikulturako Europako Itsas Funtza erabiliko dugu, «Itsas Garapen Elkartea» Arrantzako Tokiko Ekintza Taldearen eskutik, sektore pribatuari zein publikoari zuzendutako laguntza-programak bultzatzeko (ITSASPEN programaren bidez), ekonomia urdinetik eratorritako proiektuen ekintzak eta helburuak abian jartzen laguntzeko.

En cuanto a futuros desarrollos normativos, está prevista la definición y regulación de la Red Vasca de Desarrollo Rural que pretende busca impulsar la colaboración entre instituciones y agentes del territorio, promoviendo el intercambio de experiencias y la creación de posibles soluciones comunes y la aprobación del Plan de Desarrollo Territorial que dará cobertura y directrices al conjunto de Planes Comarcales de Desarrollo Rural que se desarrollen.

Espacios portuarios y desarrollo litoral

Con relación al desarrollo litoral y la gestión de espacios portuarios: esta legislatura es importante impulsar la economía azul en nuestro litoral y adecuar las instalaciones portuarias a las nuevas necesidades económicas y sociales.

La nueva Estrategia Vasca de Desarrollo Litoral identificará oportunidades de negocio vinculados con el sector del mar que van a requerir una adaptación de las actuales instalaciones portuarias a esa nueva realidad que vislumbramos en el corto plazo.

Descarbonización, biotecnología marina, turismo sostenible, recuperación de la biodiversidad, pesca, acuicultura, en fin, son actividades que van a hacer de nuestros puertos «hubs» de oportunidades económicas que no debemos desaprovechar.

También se finalizará la redacción de los Planes Especiales Portuarios que están pendientes y, de la misma manera y de la mano de las administraciones municipales y agentes locales, se crearán los distintos Consejos Municipales Portuarios.

Es intención de este Departamento iniciarlos con la constitución del Consejo Municipal Portuario de Mutriku que, entre otros fines, tendrá la misión de Consolidar el dique de Abrigo, así como la construcción de las fábricas de hielo de Ondarroa y Bermeo y del carro de varado en Bermeo.

Utilizaremos además el Fondo Europeo Marítimo de la Pesca y Acuicultura para, de la mano del Grupo de Acción Local Pesquero «Itsas Garapen Elkartea», impulsar programas de ayuda dirigidos tanto al sector privado como público (a través del programa ITSASPEN), que ayuden a la puesta en marcha de las acciones y objetivos de los proyectos derivados de la economía azul.

PROGRAMA

5151 PORTUAK

PROGRAMA

5151 PUERTOS

ARDURADUNA

ELIKADURA, LANDA GARAPENA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA
ITSASERTZAREN GARAPENENKO, PORTUEN ETA ITSAS
GAJETAKO ZUZENDARIA

RESPONSABLE

ALIMENTACIÓN, DESARROLLO RURAL, AGRICULTURA Y
PESCA
DIRECTOR DE DESARROLLO LITORAL, PUERTOS Y ASUNTOS
MARÍTIMOS

MEMORIA

Autonomia-erkidegoaren eskumeneko portuetarako programatutako jarduketan helburua da portuetako agenteek sustatzen dituzten jarduera sozioekonomikoak bultzatu eta koordinatzea arrantzaren, merkataritzaren, kirol-nautikaren eta turismoaren sektoreetan, alde batera utzi gabe defizitaren helburuak Gobernu honetako sail guztiei eskatzen dizkien aurrekontu-doikuntzak.

Horretarako, Itsasertzaren Garapeneko, Portuen eta Itsas Gaietako Zuzendaritzaren eginkizunen artean sartzen da EAeri atxikitako portu-azpiegiturak planifikatu, egin, handitu, zaindu eta behar berrietara egokitzeko jarduerak egitea, bai eta portuan ematea portuko jarduera-sektoreetako erabiltzaileentzako eta ontzietarako zerbitzuak ere, jarduera-sektore horiek honako hauek direla: arrantza, itsas aisialdia eta merkataritza. Zerbitzu batzuk ontzi guztientzat dira: babesa, lurreko nahiz itsasoko sarbidea, amarralekuak, ainguratzeko lekuak, konponketa- eta horniketa-eremuak, portu-gainazalen egokitzapena eta abar. Beste batzuk ostera, zehatzagoak dira, eta arrantza-ontzientzat (arraina prestatu eta saltzeko lonjak, izotz-fabrikak, sareentzako aterpeak, lanabesentzako biltegiak), kirol-ontzientzat (kapitaintza, pantalanak, ainguratzeak) edo merkataritza-ontzientzat soilik (biltegiak, zabalgunek eta abar) izan daitezke. Azken finean, helburua da portu seguruak izatea, behar besteko edukierarekin, zerbitzua eta babesa emateko egoera egokian, eta beti instalazio horiek erabiliko dituzten pertsonengan pentsatuta. Horretarako, ezinbestekoa da generoaren ikuspegia sartzea programa honetan, hala, biztanleria guztiari erantzun egokia eman ahal izateko, bai eta, irisgarritasun-baldintzak hobetzeaz gain, ingurumena babesteko eta energiaren aldetik jardunbide efizienteetarako dugun erantzukizuna gogoraraztea ere.

Las actuaciones programadas para los Puertos de competencia autonómica pretenden impulsar y coordinar las diferentes actividades socioeconómicas promovidas por los agentes portuarios, en el sector de la pesca, el comercio, la náutica deportiva y el turismo, sin dejar de lado los ajustes presupuestarios que el objetivo del déficit exige a todos los departamentos de este Gobierno.

Para ello, la Dirección de Desarrollo Litoral, Puertos y Asuntos Marítimos tiene entre sus cometidos principales la planificación, ejecución, ampliación, conservación y adaptación a las nuevas necesidades de las infraestructuras portuarias adscritas a la CAPV, así como el de prestar en puerto los servicios dirigidos a las embarcaciones, y a los usuarios y usuarias de los diversos sectores de actividad del puerto: pesquera, náutica-recreativa y comercial. Dichos servicios son tanto de carácter general: abrigo de la mar, acceso marítimo y terrestre, atraque, fondeo, áreas de reparación y aprovisionamiento, habilitación de superficies portuarias, etc., comunes a todo tipo de flota, como de carácter específico, tales como los destinados a la flota pesquera (fábrica de hielo, lonjas de pescado, edificios para redes, almacenes para pertrechos, etc.), a la deportiva (capitanía, pantalanes, amarres), o a la comercial (almacenes, tinglados, explanadas, etc.). En definitiva, se trata de mantener unos puertos seguros, con capacidad suficiente y con las condiciones de servicio y abrigo adecuadas, pensando siempre en las personas que harán uso de estas instalaciones. Es indispensable, a este fin, incorporar la perspectiva de género en este programa para poder dar una respuesta adecuada a toda la población, así como mejorar las condiciones de accesibilidad, y recordar nuestra responsabilidad en la adecuada protección del medio ambiente y en las prácticas eficientes desde el punto de vista energético.

Garraio-sektorea denez planetako emisio kutsatzaileen zati handi baten arduraduna, modu aktiboan parte hartu behar dugu klima-aldaketaren aurkako estrategian. Horrenbestez, itsas garraioa azpiegitura egokiez hornitu behar da, eta jasangarritasuna eta energia-efizientzia izan behar dira lehenetsun nagusia.

Zuzendaritzak azken hamarkadan izan duen lehenetsunen artean egon da azken boladan antzeman diren denboraleetako olatuen altueraren eta eraginaren aparteko energiaren aurrean gure portu-azpiegituren babesak indartu eta egokitzeko beharra. Lan horiek 2014ko eta 2016ko denboraleek eragindako kalteen ondorioz hasi ziren.

Gai horretan aurreikusitako plangintza bete egin da, eta 2024ko ekitaldian amaitu egin dira Ondarroako portuko babes-dikea indartzeko obrak, horixe izanik Bizkaian nahiz isurialde kantauriarrean erreferentziatzko arrantza-portua eta EAEn indartzeke geratzen zen azken dikea, 2014an hasitako jardueren ondotik (Bermeo, Orio, Zumaia, Hondarribia eta Getariako babes-dikeak indartu dira aldi honetan). Jarduera hau amaituta, bukatutzat ematen dira Zuzendaritza honek epe laburrean EAeko portuetako babes-dikeak indartu eta egokitzeko programatu dituen jarduera nagusiak.

Bestalde, 2024an Mutrikuko babes-dikean portuaren barneko nahasura eta uhin luzea aztertu dira eta, azterketa horretan ateratako emaitzen arabera, eraikuntza-proiektu bat idatzi da, egungo dukea luzatu eta, hala, barruko darsenaren babes-baldintzak hobetzeko. Era berean, proiektuaren ingurumen-agiria idazteko eskatu da, eta dagozkion ingurumen-izapideak hasi dira. 2025eko lehen hiru hilekoan ingurumenaren gaineko eraginaren txostena edukitzea eta, hala, obra-kontratua lizitatu ahal izatea espero da. Esan beharra dago, nahiz eta obren zuzendaritza fakultatiboa Zuzendaritzako langileen esku geratuko den, obraren ezaugarriak direla eta, beharrezkoa dela obra-zuzendaritzaren eta obrari lotutako ingurumen-zuzendaritzaren laguntza teknikoko zerbitzu-kontratua edukitzea, lanen jarraipena, ikuskapena eta etengabeko gainbegiratzea garatzeko, bai eta proiektuaren ingurumen-izapideak egin ondoren ezartzen diren ingurumen-baldintzak betetzen diren zorroztz zaintzeko ere.

Siendo el transporte el sector responsable de una gran parte de las emisiones contaminantes del planeta, tenemos la obligación de tomar parte activa en la estrategia contra el cambio climático en la parte que corresponde, dotando al transporte marítimo de las infraestructuras adecuadas, manteniendo el firme compromiso de dar máxima prioridad a la sostenibilidad y a la eficiencia energética.

Un aspecto primordial para esta Dirección durante la última década ha sido el dar respuesta a la necesidad de refuerzo y adaptación de nuestras infraestructuras de abrigo portuario frente a la extraordinaria energía de impacto y altura de oleaje de los temporales que vienen observándose, trabajos que se iniciaron como consecuencia de los daños ocasionados por los temporales sufridos en el año 2014 y 2016.

En este sentido, se ha cumplido con la planificación prevista y en el ejercicio 2024 se han finalizado las obras de refuerzo del dique de abrigo del puerto de Ondarroa, puerto pesquero referente tanto en Bizkaia, como en la vertiente cántabra, siendo el último de los diques que restaba por reforzar en la CAPV tras las actuaciones iniciadas desde 2014 con los refuerzos de los diques de abrigo de Bermeo, Orio, Zumaia, Hondarribia y Getaria. Con la culminación de esta actuación, se dan por finalizadas las principales actuaciones programadas por esta Dirección en materia de refuerzo y adaptación de los diques de abrigo de los puertos de la CAPV en el corto plazo.

Por otro lado, en cuanto al dique de abrigo de Mutriku, durante 2024 se ha realizado un análisis de la agitación interior y onda larga del puerto y, en base a los resultados obtenidos en el referido estudio, se ha redactado un proyecto constructivo cuyo objetivo es la prolongación del dique actual para mejorar las condiciones de abrigo de la dársena interior. Asimismo, se ha encargado la redacción del documento ambiental del proyecto y se ha iniciado la tramitación ambiental correspondiente. Se espera poder disponer del informe de impacto ambiental durante el primer trimestre de 2025 y así poder licitar el contrato de obra. Cabe señalar que, si bien la Dirección Facultativa de las Obras se llevará a cabo con personal propio de la Dirección, dadas las características de la obra, será preciso disponer de un contrato de servicio de asistencia técnica a la dirección de obra y dirección ambiental asociado a la obra que permita realizar un seguimiento, inspección y supervisión permanente y constante de los trabajos, así como una estricta vigilancia del cumplimiento de los requisitos ambientales que se establezcan tras la tramitación ambiental del proyecto.

Atrakatzeko ditugun azpiegiturak hobetzea ere gure programaren helburuetako bat da. Jakina denez, Zuzendaritza honek EAeko portuetako kaiak ikuskatu eta aztertzeko lanak egin zituen 2021ean. Lan horiei esker, gure kaiak gaur egun zein kontserbazio-egoera duten jakin ahal izan da eta, hala, epe ertain-laburrean jarduteko gure beharrak lehenetsi ahal izan dira. Horrekin lotuta, 2024ko ekitaldirako aurreikusitako plangintza ere bete da. Alde batetik, Jaranako kaia konpontzeko obra amaitu da Donostiako portuan, 2024ko bigarren hiruhilekoan. Era berean, 2024ko ekitaldian zehar, kaiak konpondu eta indartzeko hainbat proiektu idatzi dira. Zehazki, honako hauek: Ondarroako portuko Egidazu kaia berpiztu, zerbitzuak ordeztu eta zoladura berritzeko proiektua; Getariako portuaren barruko arrantza-darsenako kaiak konpondu eta indartzeko proiektua; eta Orioko portuko arrantza-kaiak (oinezko pasabidetik Itsas-Etxera) konpondu eta indartzeko proiektua. Jarduera horien helburuak dira: nariadura-maila aurreratua duten kaiak konpondu eta hobetzea, horien egonkortasuna hobetzea, eta, zilegi den tarteetan, koroatze-kota haztea, klima-aldaketara egokitzeko neurri gisa, itsasoaren maila igotzen ari dela kontuan hartuta. Hiru proiektu hauen lizitazioa eta egikaritzaren hasiera 2025eko ekitaldirako aurreikusi dira, eta 2026an zehar luzatuko dira. Era berean, 2021ean hasitako lanarekin jarraitzeko, 2025ean kaiak konpondu eta indartzeko proiektuak idatzi nahi dira, esate baterako Gipuzkoako Lurralde Historikoko Mutriku udalerriko portuaren barruko dikeen muturrak indartzeko proiektua.

Atrakatze-azpiegiturak indartzeko eta birmoldatzeko obrei dagokienez, 2025eko ekitaldian Ondarroako portuan Artibai ibaia bideratzeko kaian zimendua berritzeko obrak lizitatzea eta egiten hastea espero da, kaltetutako zonak egonkortzea eta birgaitzea bermatzeko, betiere portu horretako arrain-lonja berria eraikitzeke obrak 2022an bukatuta eta Egidazuko kaiak konpondu eta indartzeko aurreikusitako obrak 2025erako hasita.

Bestalde, aipatzekoa da 2025ean guztiz indarrean jarraituko dutela bi lurralde historikoetako portuetako instalazio elektrikoak, argiak eta balizajea mantendu eta hobetzeko kontratuek, 2024an horiek beste bi urtez luzatzea formalizatu ondoren. Beraz, kontratu horiek 2026aren amaierara arte egongo dira indarrean.

También son objeto de atención en nuestro Programa la mejora de nuestras infraestructuras de atraque. En esta línea, como es sabido, esta Dirección llevó a cabo unos trabajos de inspección y análisis de los muelles de los puertos de la CAPV en el año 2021 que nos han permitido conocer el estado de conservación que presentan nuestros muelles en la actualidad y priorizar así nuestras necesidades de actuación a corto-medio plazo. En este sentido, también se ha cumplido con la planificación prevista para el ejercicio 2024. Por un lado, se ha finalizado la obra de reparación del muelle de la Jarana en el puerto de Donostia/San Sebastián en el segundo trimestre de 2024. Asimismo, durante el ejercicio 2024 se han redactado varios proyectos de reparación y refuerzo de muelles. En concreto, los siguientes: el proyecto de recrecido, reposición de servicios y repavimentación del muelle Egidazu del puerto de Ondarroa, el proyecto de reparación y refuerzo de los muelles de la dársena pesquera interior del puerto de Getaria y el proyecto de reparación y refuerzo de los muelles pesqueros (desde la pasarela peatonal hasta la Itsas-Etxe) del puerto de Orio. El objetivo de las referidas actuaciones es reparar y consolidar los muelles que presentan un grado de deterioro avanzado, mejorar su estabilidad y recrecer la cota de coronación de aquellos tramos donde sea factible como medida de adaptación frente al cambio climático, como consecuencia del aumento del nivel del mar. La licitación y el comienzo de la ejecución de estos tres proyectos se ha previsto para el ejercicio 2025, y se prolongarán durante 2026. Asimismo, como continuación del trabajo iniciado en 2021, se pretende redactar diversos proyectos de reparación y refuerzo de muelles durante el ejercicio 2025, como pudiera ser el proyecto de refuerzo de los morros de los diques interiores del puerto de Mutriku en el T.H. de Gipuzkoa.

Continuando con lo relativo a obras de refuerzo y remodelación de infraestructuras de atraque, en el ejercicio 2025 se pretende licitar y comenzar la ejecución de las obras de recalce del muelle de encauzamiento de la ría Artibai en el puerto de Ondarroa, para garantizar la estabilización y rehabilitación de las zonas dañadas del muelle, una vez finalizada la ejecución de las obras de construcción de la nueva lonja de pescado de dicho puerto en 2022 y una vez iniciadas las obras de reparación y refuerzo de los muelles de Egidazu también previstas para 2025.

En otro orden de cosas, cabe señalar que en 2025 seguirán plenamente vigentes los contratos relativos al mantenimiento y mejora de las instalaciones eléctricas, de alumbrado y balizamiento marítimo de los puertos de ambos Territorios Históricos tras haberse formalizado las prórrogas de estos contratos por otros dos años adicionales en el ejercicio 2024, estando vigentes hasta finales de 2026.

Bi lurralde historikoetan aplikatzen diren mantentze-kontratu orokorrekin jarraituz, 2025ean zehar guztiz indarrean jarraituko dute obra zibilak eta itsas obrak egiteko izapidetutako esparru-akordioek. 2024an zehar, itsas obrei buruzko esparru-akordioaren luzapena formalizatu da, beste bi urtez. Indarrean egongo da 2026ko lehen hiruhilekoaren amaierara arte. Obra zibilen esparru-akordioari dagokionez, beste bi urtez luzatzeko aukera egonik ere, obra zibilen esparru-akordio berri bat lizitatzea erabaki zen, lote bakoitzeko enpresa-kopurua murrizta zelako. Hartara, kontratuaren kalitatea handituko duten zenbait hobekuntza sartu nahi ziren. Ondorioz, 2024ko bigarren hiruhilekoan beste kontratu bat formalizatu da obra zibilak estaltzeko, 80.000,00 €-tik beherako aurrekontua tarteko. Kontratu hori 2026ko bigarren hiruhilekora arte egongo da indarrean. Gogoratu beharra dago kontratu horiei esker Itsasertzaren Garapeneko, Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzak konponketa-, berritze-, hobekuntza- edo egokitzapen-obra txiki asko egin ahal dituela EAeko portuetan. Obra horiek egitea ezinbestekoa da portuetako eguneroko operatibotasunerako; izan ere, izapidetze azkarra eta egikaritze malguia dute.

Bestalde, portuetan sakonera mantentzea ezinbestekoa denez, indarreko dragatze-planean ezarritako irizpideen arabera dragatzeko, diru-zuzkidura izan behar da.

Lekeitioko portura sartzeko kanala eta Mundakako portuko aldi baterako ainguratze-gunea mantentzeko ohiko dragatze-lanak egin ondoren, 2024ko uda baino lehen, 2025erako dragatze-lan handiak egitea aurreikusten da. Hala, Orioko eta Ondarroako portuko dragatze-lanak lizitatu eta egitea aurreikusten da, bai eta Hondarribiko portuko beteranoen dartsena dragatzeko lanak ere, 2024ko bigarren hiruhilekoan AESAren baimena lortu ondoren, gune horien sakonera-baldintza egokiak bermatzeko, eta, hartara, erabiltzaileen segurtasuna ziurtatzeko. Jarduera horiek 2025eko hirugarren hiruhilekorako egitea aurreikusten da.

Gainera, arestian aipatutako dragatze-jarduketan zati garrantzitsu gisa, zuzendaritza honek indarrean mantenduko du 2025eko ekitaldian EAeko portu-instalazioetan 2021-2023 aldian egindako dragatze-jarduketan jarraipena eta ingurumen-zaintza egitea xede duen kontratua, 2023aren amaieran luzatua. Alderdi hori funtsezkoa da arlo horretan, ingurumena eta itsas hondoa babesteko direla bermatzeko. Hala ere, egungo luzapena 2025eko azken hiruhilekoan amaitzen denez eta ezin denez gehiago luzatu, 2025eko lehen hiruhilekoan laguntza teknikoko kontratu berria prestatu eta lizitatuko da, egungoaren antzeko baldintzetan, 2025-2027 aldirako.

Eraikuntza-jarduketetan, aipatzekoa da 2024an zehar Ondarroako atakako zerkausiaren eraikinaren barrualdea egokitzeko eta egitura berritzeko obra lizitatu dela. Obrak urtearen hirugarren hiruhilekoan hasi dira, eta 2025erako lehen hiruhilekorako amaituta egotea aurreikusten da. Jarduera honekin eraikinaren egituraren egonkortasuna bermatu nahi da, eta barrualdea egungo portuaren beharretara egokitu.

Siguiendo con los contratos generales de mantenimiento aplicables a ambos Territorios Históricos, durante 2025 seguirán plenamente vigentes los Acuerdos Marco tramitados para la ejecución de obras civiles y obras marítimas. Durante 2024 se ha formalizado la prórroga del Acuerdo Marco relativo a obras marítimas por otros dos años adicionales, estando vigente hasta finales del primer trimestre de 2026. En lo que respecta al Acuerdo Marco de obras civiles, aun habiendo posibilidad de prorrogarlo por otros dos años, se decidió licitar un nuevo Acuerdo Marco de obras civiles dado el reducido número de empresas integrantes de cada lote y con el objetivo de introducir ciertas mejoras que perfeccionen la calidad del contrato. Por tanto, el segundo trimestre de 2024 se ha formalizado un nuevo contrato que da cobertura a obras civiles de presupuesto inferior a 80.000,00€ que estará vigente hasta el segundo trimestre de 2026. Hay que recordar que estos contratos están permitiendo a la Dirección de Desarrollo Litoral, Puertos y Asuntos Marítimos ejecutar un importante número de obras menores de reparación, reforma, mejora o adecuación en los puertos de la CAPV, fundamentales para mejorar la operatividad en el día a día de los puertos, por la agilidad de tramitación y flexibilidad de ejecución que ofrecen.

Por otra parte, el necesario mantenimiento de calados en los puertos nos obliga a contar con una dotación económica para los dragados de estos siguiendo los criterios derivados del Plan de Dragados vigente.

Tras haberse llevado a cabo los dragados habituales de mantenimiento del canal de acceso al puerto de Lekeitio y de la zona de fondeo temporal del puerto de Mundaka previo al periodo estival en el ejercicio 2024, para el 2025 se prevé la realización de actuaciones de dragado significativas. Así, se prevén licitar y ejecutar los dragados del puerto de Orio y del puerto de Ondarroa, así como el dragado de la dársena de veteranos del puerto de Hondarribia tras haber obtenido la autorización de AESA en el segundo trimestre de 2024, con el objetivo de garantizar unas adecuadas condiciones de calado de estas zonas, garantizando así la seguridad a sus usuarios y usuarias. La ejecución de dichas actuaciones está prevista para el tercer trimestre del 2025.

Además, como parte importante de las actuaciones de dragado anteriormente mencionadas, esta Dirección mantendrá vigente durante el ejercicio 2025 el contrato, prorrogado a finales de 2023, que tiene por objeto el "Seguimiento y vigilancia medioambiental de las actuaciones de dragado llevadas a cabo por esta Dirección en las instalaciones portuarias de la CAV entre el periodo 2021-2023", aspecto fundamental en esta materia para garantizar una protección del medio ambiente y de los fondos marinos. No obstante, dado que la prórroga actual finaliza el último trimestre de 2025 no habiendo más posibilidades de prórroga, el primer trimestre de 2025 se preparará y se licitará un nuevo contrato de Asistencia Técnica, en términos similares al actual, para el periodo 2025-2027.

En lo relativo a actuaciones de edificación, cabe señalar que durante el año 2024 se ha licitado la obra de rehabilitación estructural y adecuación de interiores del edificio del tinglado del puerto de Ondarroa habiendo comenzado las obras el último trimestre del año y estando prevista su finalización para el primer trimestre de 2025. Con esta actuación se pretende garantizar la estabilidad estructural del edificio y adecuar sus interiores a las necesidades portuarias actuales.

Eraikuntzaren sektorearekin lotutako jarduerekin jarraituz, 2025eko ekitaldirako Mutrikuko portuko kofradia zaharraren eraikina birgaitzeko obra lizitatu eta hastea planteatzen da, eraikinaren birgaikuntza integrala egiteko asmoz, sute batek hondatu baitzuen. Hartara, hobetu egingo dira irisgarritasun-baldintzak, areagotu egingo dira inguratzaileren eta instalazioen eraginkortasun energetikoa, eta eraikinari portuko hirigintza-antolamendurekin bateragarriak diren erabilerak emango zaizkio.

Amaitzeko, 2025ean lizitatu eta egikaritzeko programatutako beste jarduera bat aipatu behar da; zehatzago, Armintzako portuko kaiaren berrantolaketa, portuan kofradiaren eraikin berria eraikitzeko asmoa duen proiektu baten bidez, Hala, portuko hirigintza-antolamendua eta inguruko bide-trafikoa hobetu nahi dira.

Bestalde, portuaren jabaria eta instalazioak errealitate berrietara eta gaur egun dauden mugikortasun-eskarietara egokitze aldera, 2023an zehar Zuzendaritza honek azterketa bat eskatu zuen, EAEko portu nagusietan ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuen instalazioak jartzeko bideragarritasuna identifikatu eta ikertze aldera. Portu bakoitzeko erabilera posibleak, puntu motak eta ezaugarriak nahiz horiekin lotutako beharrezko azpiegiturak proiektu batean zehaztu ondoren, Zuzendaritza honen asmoa da 2025ean ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuen sistemaren ezarpena lizitatu eta hastea gure portu nagusietan. Horrekin lotuta, Zuzendaritza honek 2025erako EAEko portu nagusietan itsasontzi elektrikoak kargatzeko puntuak instalatzearen bideragarritasunaren gaineko azterketa eskatu eta eduki nahi du, karga-sare hori zehazten eta garatzen hasteko eta, hala, emandako zerbitzua hobetzeko, sistema berritzaile baten bidez, portu inguruan isuriak, zaratak eta dardarak murriztu ahala.

Bestalde, 2025eko ekitaldian Bizkaian obren segurtasun eta osasunaren koordinaziorako kontratua mantenduko da. Gipuzkoan, bestetik, egungo luzapena 2025eko bigarren hiruhilekoan amaitzen da, eta ezin da gehiago luzatu. Ondorioz, 2024ko hirugarren hiruhilekoan zehar Gipuzkoako obren segurtasun eta osasunerako koordinaziorako beste kontratu bat edukitzeko lizitazio-espeditente berri bat prestatu da, egungo luzapena amaitzen denerako. Horretarako, programa honetan aurrekontu-estaldura egokia egotea aurreikusten da.

Gainera, portuko zerbitzuak hobeto emateko, portuko instalazioen kudeaketa hobetzen jarraituko da, EAEko portu guztietako lehorreko lurgainetik eta ur-laminatik datozen hondakinak garbitzeko eta biltzeko zerbitzuaren kontratuen bidez, bai Bizkaian, bai Gipuzkoan.

Continuando con las actuaciones ligadas al sector de la edificación, se plantea para el ejercicio 2025 la licitación y el inicio de la obra de rehabilitación del edificio de la antigua cofradía del puerto de Mutriku, con el firme objetivo de ejecutar una rehabilitación integral de este edificio, dañado por un incendio, mejorando así sus condiciones de accesibilidad, la eficiencia energética de su envolvente y de sus instalaciones y dotando al edificio de unas posibilidades de uso compatibles con la ordenación urbanística portuaria.

Para finalizar, es preciso mencionar otra actuación programada para ser licitada y ejecutada en 2025, más concretamente, la reordenación del muelle de ribera del puerto de Armintza, mediante la ejecución del proyecto que tiene por objeto la construcción del nuevo edificio de la Cofradía del puerto, mejorando así la ordenación urbanística del puerto y el tráfico viario de la zona.

Por otro lado, con el objetivo de adaptar el dominio portuario y sus instalaciones a las nuevas realidades y demandas de movilidad existentes en la actualidad, durante el ejercicio 2023 esta Dirección encargó un estudio para identificar y analizar la viabilidad de albergar instalaciones de puntos de recarga de vehículos eléctricos en los principales puertos de la CAPV. Una vez definidos los potenciales usos en cada puerto, la tipología y características de dichos puntos, así como la infraestructura necesaria asociada a los mismos en un proyecto, es intención de esta Dirección en este ejercicio 2025 licitar e iniciar la implantación de un sistema de puntos de recarga de vehículos eléctricos en nuestros principales puertos. En esta misma línea, es objetivo de esta Dirección para el ejercicio 2025 encargar y disponer de un estudio de viabilidad de instalar puntos de recarga para embarcaciones eléctricas en los principales puertos de la CAPV que nos permita definir y comenzar a desarrollar dicha red de recarga en aras a mejorar el servicio prestado, mediante un sistema innovador, contribuyendo a la reducción de emisiones, ruidos y vibraciones en el ámbito portuario.

Por otro lado, se mantendrá en este ejercicio 2025 el contrato para la Coordinación de Seguridad y Salud de las obras en Bizkaia. En el caso de Gipuzkoa, la prórroga actual finaliza el segundo trimestre de 2025, no habiendo más posibilidad de prorrogar el contrato. Por tanto, durante el tercer trimestre de 2024 se ha preparado un nuevo expediente de licitación para disponer de un nuevo contrato para la Coordinación de Seguridad y Salud de las obras en Gipuzkoa una vez finalice la actual prórroga, para lo cual se prevé en este Programa la correspondiente cobertura presupuestaria.

Además, para una mejor prestación de los servicios portuarios, se continuará en la línea de mejora de la gestión de las instalaciones portuarias, todo ello mediante los contratos del servicio de limpieza y recogida de residuos procedentes de la superficie terrestre y de la lámina de agua de todos los puertos de la CAPV, tanto en Bizkaia como en Gipuzkoa.

2024ko ekitaldian zehar, Bizkaiko Lurralde Historikoaren ekialdeko garbiketa-kontratuaren luzapena formalizatu da, beste bi urtez, 2026ko hirugarren hiruilekora arte. Horren barruan, Bilboko bulegoaren garbiketa sartzen da. Era berean, 2023ko ekitaldian Bizkaiko Lurralde Historikoaren mendebaldeko garbiketa-kontratua luzatu zen. Kontratu horrek indarrean jarraituko du 2025eko apirilera arte, eta aipatu kontratua beste urtebetez luzatu daiteke, 2026ko bigarren hiruilekora arte. Horretarako, programa honetan aurrekontu-estaldura egokia egotea aurreikusten da. Gipuzkoari dagokionez, 2024ko apirilean kontratu berri bat formalizatu da, aurreko esleipendunak luzapena egiteari uko egin ostean. Kontratu berriak bi urteko iraupena du, eta indarrean egongo da 2026ko bigarren hiruilekora arte. Azpimarratzekoa da programa honetan aurrekontu-zuzkidura handia aurreikusi dela, azken urteetan era honetako kontratuetan egondako ordainsarien kostuen igoerak barne hartzeko.

Jende gehien batzen duten portuetan Zaintza eta Segurtasun Zerbitzuarekin jarraituko da, hau da, Gipuzkoa barruan Donostian eta, Bizkaia barruan Ondarroan, Lekeition, Mundakan eta Bermeon. Horrekin lotuta, esan beharra dago Donostiako portuko segurtasun eta zaintzako kontratuaren esleipendunak uko egin diola luzapena egiteari. Beraz, 2024ko azaroan kontratua amaitu baino lehen, Zuzendaritza honek kontratu berri bat lizitatu eta formalizatu du, aurrekoa iraungitzean martxan jar dadin (2024ko azaroaren 7an), hurrengo bi urteetarako. Adierazi beharra dago programak aurrekontu-zuzkidura handia aurreikusten duela, azken urteetan era honetako kontratuetan ordainsarien kostuetan egondako igoerak barne hartzeko. Bizkaian, Ondarroa, Lekeitio, Mundaka eta Bermeoko portuen segurtasun eta zaintzako kontratuari dagokionez, 2024ko martxoan aipatutako kontratua esleitzeko lizitazioa hutsik geratu ondoren, 2024ko maiatzean berriz argitaratu zen kontratu berriaren lizitazioa, eta 2024a amaitu baino lehen formalizatuta egotea aurreikusten da, bi urterako. Horretarako, programa honetan aurrekontu-zuzkidura handia aurreikusi da, azken urteetan era honetako kontratuetan ordainsarien kostuetan egondako igoerak barne hartzeko, Donostiako portuko zaintza-kontratuan bezala.

Bestalde, hirigintzan, Itsasertzen Garapeneko, Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzak portuaren jabari publikoaren kudeaketan eta portuen antolaketarako hirigintza-planen izapideetan esleituta dituen eskumenen barruan, aipatzekoa da Bermeoko portuaren Antolaketa Plan Bereziaren 3. aldaketa zehatzarekin eta Zumaiako portuko Antolaketa Plan Bereziaren 1. aldaketa puntualarekin jarraitzen dela.

Ondorioz, 2025eko ekitaldian plan horiek egiten eta izapidetzen jarraituko da.

Durante el ejercicio 2024 se ha formalizado la prórroga del contrato de limpieza de la zona este del Territorio Histórico de Bizkaia, en el cual se incluye la limpieza de la oficina de Bilbao, por dos años más, hasta el tercer trimestre de 2026. Asimismo, en el ejercicio 2023 se prorrogó el contrato de limpieza correspondiente a la zona oeste del Territorio Histórico de Bizkaia, el cual seguirá vigente hasta abril de 2025, habiendo otra posibilidad de prorrogar el referido contrato por 1 año más, hasta el segundo trimestre de 2026, para lo cual se prevé en este Programa la correspondiente cobertura presupuestaria. En lo que respecta a Gipuzkoa, en abril de 2024 se ha formalizado un nuevo contrato tras la renuncia del adjudicatario anterior a ejecutar la prórroga. El nuevo contrato tiene una duración de dos años y estará en vigor hasta el segundo trimestre de 2026. Se debe subrayar que se ha previsto en este Programa una importante dotación presupuestaria que de cabida a los incrementos de los costes retributivos sufridos en este tipo de contratos en los últimos años.

En los puertos más concurridos se mantendrá el Servicio de Vigilancia y Seguridad, como son el de Donostia en Gipuzkoa, y los de Ondarroa, Lekeitio, Mundaka y Bermeo en Bizkaia. En este sentido, hay que señalar que la adjudicataria del contrato de seguridad y vigilancia del puerto de Donostia ha renunciado a ejecutar la prórroga por lo que, ante la finalización del contrato en noviembre de 2024, esta Dirección ha licitado y ha formalizado un nuevo contrato que debería comenzar a regir desde la fecha que venza el anterior (07 de noviembre de 2024) durante los dos años siguientes. Cabe señalar que el Programa contempla una importante dotación presupuestaria que de cabida a los incrementos de los costes retributivos sufridos en este tipo de contratos en los últimos años. En lo que respecta al contrato de seguridad y vigilancia de los puertos de Ondarroa, Lekeitio, Mundaka y Bermeo en Bizkaia, tras haberse declarado desierta la licitación para la adjudicación del contrato referido en marzo de 2024, en mayo de 2024 se volvió a publicar la licitación del nuevo contrato que se prevé que esté formalizado antes de que finalice el año 2024, con una duración de dos años, para lo cual se ha previsto en este Programa una importante dotación presupuestaria que de cabida a los incrementos de los costes retributivos sufridos en este tipo de contratos en los últimos años al igual que en el contrato de vigilancia del puerto de Donostia.

Por otro lado, en materia de urbanismo, dentro de las competencias que tiene atribuidas esta Dirección de Desarrollo Litoral, Puertos y Asuntos Marítimos en la gestión del dominio público portuario y la tramitación de planes urbanísticos de ordenación portuaria, señalar que se continúa con la 3ª modificación puntual del Plan Especial de Ordenación del puerto de Bermeo y con la 1ª modificación puntual del Plan Especial de Ordenación del puerto de Zumaiá.

Por lo tanto, de cara al ejercicio 2025, se continuará con la elaboración y tramitación de dichos planes.

Bestalde, Euskadiko Kirol Portuak-EKPri agindutako zereginen barruan, Euskal Autonomia Erkidegoko Portuen eta Itsas Garraioaren ekainaren 28ko 2/2018 Legearen arabera, ur-kiroleko ontzietarako ainguratzegaitasuna eta kudeatutako instalazioen egoera hobetzen jarraituko da. Hala, 2025aren amaierarako Bermeon Artzako kaian pantalanak kokatzeko proiektuaren egikaritzea lizitatu eta hasia espero da, portu horretan ainguratzegaitasuna areagotzeko. Era berean, Bermeoko portuko hondartze-orgak berritzen amaituko da.

Gainera, uretako eta kiroleko erabilera duten instalazioak egokitu, modernizatu eta mantentzeko beharrezko inbertsioak egiten jarraituko da, eta portu-zerbitzuak hobetzen jarraituko da, etengabe hobetzeko irizpidearen eta ISO UNE 9001, 14001 eta 45001 arauen arabera.

Itsasoko eta portuko eremuko profesionalen prestakuntza eta hobekuntza, Itsas Administrazioako Eskolak, Eusko Jaurlaritzako Itsasertzaren Garapeneko, Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzara atxikiak, Euskal Herriko Unibertsitatearekin eta Deustuko Unibertsitatearekin lankidetzan jarraituko du.

Euskal Herriko Unibertsitatean, zehazki, «Saltillo» eskola-itsasontziaren nabigagarritasun-baldintza egokiak mantentzeko ekarpena egiten jarraituko du. Hala, nautikako ikasleen praktikak egiten laguntzen da eta, 2023ko ekitaldiaz geroztik, EAEko 16-18 urte bitarteko gazteen artean itsas merkataritzako ikasketak egiteko bokazioak sustatzen dira. Era berean, EHUrekin lankidetzan arituko da urtero ospatzen den Itsas Zuzenbidearen Nazioarteko Biltzarra planifikatu eta egiten, Itsas Zuzenbidearen eremuan gaurkotasan handiena duten edukiak jorratzeko.

Deustuko Unibertsitatean, bestalde, 2000. urtean zehaztutako lerroan lan egingo da, besteak beste Portuetako Itsas Enpresen Kudeaketako eta Itsas Zuzenbideko Masterra nabarmen sustatzeko, eta, hala, itsas sektoreak behar duen profesional-haztegia izaten jarraitzeko.

Itsas Merkataritzaren eremuko titulazio profesionaletan, inplikaturako aldeekin lankidetzan jarraituko da, horiek titulazioen igorpena arautzen duten hitzarmenetan (bereziki, SCTW hitzarmenean) nazioarte mailan ezartzen diren edukiak bete ditzaten.

2025eko ekitaldian zehar, itsasoko eta portuko sektorea indartzen jarraituko da, elkarrekin babesa emateko hainbat lerroren bidez. Horien artean nabarmentzekoa da Asociación de Navieros Vascos izeneko elkarterako kideen ontzietan nautikako ikasleen praktika profesionalak garatzeko laguntza.

2025ean zehar, EAEko portuak sustatzeko lanarekin jarraituko da, azoka eta lehiaketetan parte hartuz, eta Basque Country marka baliatuz.

Por otro lado, dentro de las tareas encomendadas a Euskadiko Kirol Portuak-EKP, de acuerdo a la Ley 2/2018, de 28 de junio, de Puertos y Transporte Marítimo del País Vasco, se continuará optimizando y mejorando la capacidad de amarre para embarcaciones náutico-deportivas, así como el estado de las instalaciones gestionadas. Así, se pretende licitar e iniciar a finales de 2025 la ejecución del proyecto para la colocación de pantalanen en el muelle de Artza en Bermeo, a fin de aumentar la capacidad de amarres en dicho puerto. Así mismo, se finalizará la renovación de los carros de varada del puerto de Bermeo.

Además se continuará realizando las inversiones necesarias para la adecuación, modernización y mantenimiento de las instalaciones de uso náutico-deportivo y se continuará optimizando la prestación de los servicios portuarios bajo el criterio de la mejora continua y las normas ISO UNE 9001, 14001 y 45001.

En cuanto a la formación y perfeccionamiento de las y los profesionales en el ámbito marítimo portuario, la Escuela de Administración Marítima, adscrita a la Dirección de Desarrollo Litoral, Puertos y Asuntos Marítimos del Gobierno Vasco, seguirá con su línea de colaboración tanto con la Universidad del País Vasco como con la Universidad de Deusto.

Respecto a la Universidad del País Vasco, continuará con la aportación en el mantenimiento de las adecuadas condiciones de navegabilidad del buque escuela «Saltillo», que contribuye a la realización de las prácticas del alumnado de náutica y, desde el ejercicio 2023, a promover vocaciones para la realización de estudios de marina mercante entre los y las jóvenes de 16 a 18 años de la CAPV. Igualmente, colaborará con la UPV en la planificación y ejecución del Congreso Internacional de Derecho Marítimo que anualmente se celebra, con los contenidos más actuales en el ámbito del Derecho Marítimo.

En lo que a la Universidad de Deusto se refiere, se trabajará en la línea marcada desde el año 2000, para continuar con el impulso, de manera fundamental y entre otras actuaciones, del Master en Gestión de Empresas Marítimo Portuarias y Derecho Marítimo, para que siga siendo el semillero de profesionales que el sector marítimo necesita.

En relación con las titulaciones profesionales en el ámbito de la Marina Mercante, continuará colaborando con las diversas partes implicadas con el fin de que éstas cumplan con los contenidos establecidos a nivel internacional en los diferentes convenios que regulan la expedición de estas titulaciones, especialmente el Convenio SCTW.

A lo largo del ejercicio 2025, se mantendrá el impulso al sector Marítimo-Portuario a través de varias líneas de apoyo a diferentes asociaciones entre las que destaca la ayuda para la realización de las prácticas profesionales del alumnado de náutica que se realicen en buques pertenecientes a los miembros de la Asociación de Navieros Vascos.

En 2025 se continuará con la labor de promoción de los puertos vascos a través de la participación en ferias y certámenes, y bajo la marca Basque Country.

2025ean World Maritime Week bi urtez behingo topaketa egingo da. Itsasertzaren Garapeneko, Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzak, ohi bezala, Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzarekin batera parte hartuko du. Topaketa horretan stand bat jarriko da portu-sektorean interesa duten pertsoneri arreta emateko.

Era berean, mundu nautikoari laguntzen jarraituko da, oro har, eta, bereziki, kirol-nabigazioaren eta belaren sektoreari.

2025eko ekitaldian, Euskal Autonomia Erkidegoak kudeatzen dituen portuetan aplikatzen diren planak berrikusten eta eguneratzen jarraituko da, hala nola Barne Larrialdietarako Planak, Itsasoko Barne Planak edo Bermeoko Portua Babesteko Plana.

2024an, Eusko Jaurlaritzak kudeatzen dituen 15 portuen Itsasoko Barne Planak berrikusi dira. Plan horien helburua da portuetan itsasoa kutsatzen duen edozein gertaerari erantzuteko protokolo eraginkorrak izatea. 2025ean, dagozkion eguneratzeekin jarraituko da.

Planetan, aldian-aldian ariketak eta simulakroak egitea aurreikusten da. Hala, horien eraginkortasuna egiaztatu ahalko da eta, era berean, esku hartzeko deia jasoko duten pertsonak entrenatuko dira. Bi plan edo gehiago uztartzen dituzten ariketak edo simulakroak aldi berean egin ahalko dira, bai Gipuzkoan, bai Bizkaian. 2025ean, portu-eremuko ariketa eta simulakro horiekin jarraituko da.

2025eko ekitaldian, portuetan gerta daitezkeen eta plan bat edo gehiago aktibatzea eragin dezaketen intzidenteei erantzuteko beharrezko materiala berrikusi, eguneratu eta, hala badagokio, berrezarriko da.

Bermeoko eta Zumaiaiko portuetako praktikaje-zerbitzuari dagokionez, eta maniobra-bolumen baxua dela eta, urteko konpentsazio bat aurreikusi da, aurreko urtean egindako maniobra-kopuruan oinarrituta. Horrela, portu horietako trafikoa ez dela etengo bermatzen da, praktikoaren balizko falta baten ondorioz.

En 2025 se celebrará el certamen bienal World Maritime Week. La Dirección de Desarrollo Litoral, Puertos y Asuntos Marítimos participará, como viene siendo habitual, junto a la Dirección de Pesca y acuicultura. En dicho certamen se instala un stand para atender a las personas interesadas en el sector portuario.

De igual modo, se continuará con el apoyo al mundo náutico en general y, en particular, con el sector de la navegación deportiva y la vela.

Durante el ejercicio 2025, se continuará con la revisión y actualización de los diferentes planes que se aplican en los puertos gestionados por la Comunidad Autónoma de Euskadi como son los Planes de Emergencia Interior, los Planes Interiores Marítimos o el Plan de Protección del Puerto de Bermeo.

En 2024 se han revisado los Planes Interiores Marítimos de los 15 puertos gestionados por el Gobierno Vasco. La finalidad de dichos Planes es contar con protocolos de respuesta eficientes ante cualquier suceso de contaminación marina en los puertos. Durante 2025 se continuará con la actualizaciones correspondientes.

Los diferentes planes contemplan la realización de ejercicios y simulacros periódicos con el propósito de comprobar la efectividad de estos, así como de procurar un cierto entrenamiento a las personas llamadas a intervenir. Podrán simultanearse ejercicios o simulacros que combinen dos o más planes y se realizarán tanto en Gipuzkoa como en Bizkaia. En 2025 se continuará con dichos ejercicios y simulacros en el ámbito portuario.

En el ejercicio 2025, se revisará, actualizará y repondrá, en su caso, el material necesario para dar respuesta a los diversos incidentes que puedan producirse en los puertos y que lleven a la activación de uno o más planes.

En cuanto al servicio de practica de los puertos de Bermeo y Zumaia, y dado el bajo volumen de maniobras, se ha previsto una compensación anual, basada en el número de maniobras realizadas en el año anterior. De esta manera, se garantiza que el tráfico de dichos puertos no se verá interrumpido por una hipotética falta de Práctico.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>1. INBERTSIOAK EGITEA PORTU AZPIEGITURA BERRIETAN, ETA LEHENDIK DAUDENAK MANTENTZEA</p> <p>1. Portuetako azpiegiturak mantendu eta sendotzea, eta sakonera eta sarbide-baldintzak hobetzea.</p> <p style="padding-left: 40px;">Dikeen eta/edo kaien azpiak berri eta sendotzea, ml-tan.</p> <p style="padding-left: 40px;">Sakonera hobetzeko dragatze-lanak, m3-tan.</p> <p>2. Portu-eraikinak eraiki, atondu eta eraberritzea.</p> <p style="padding-left: 40px;">Eraikin kopurua.</p>	<p style="text-align: center;">730</p> <p style="text-align: center;">180.000</p> <p style="text-align: center;">3</p>	<p>1. INVERSIONES EN INFRAESTRUCTURA PORTUARIA Y MANTENIMIENTO DE LAS EXISTENTES</p> <p>1. Mantenimiento y refuerzo de infraestructura portuaria y mejora de calados y condiciones de acceso.</p> <p style="padding-left: 40px;">M.L. de recalce y refuerzo de diques y/o muelles y escolleras.</p> <p style="padding-left: 40px;">M3 de dragado para mejora de calados.</p> <p>2. Construcción, habilitación y remodelación de edificios portuarios.</p> <p style="padding-left: 40px;">Número de edificios.</p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>Eraikitako azalera, m2-tan.</p>	<p>1.825</p>	<p>M2 de superficie construida</p>
<p>2. INBERTSIOAK EGITEA ITSAS KIROLETAKO INSTALAZIOETAN, ETA HAI EK MANTENDU ETA KUDEATZEA</p>		<p>2. INVERSIONES EN INSTALACIONES NÁUTICO-DEPORTIVAS Y SU MANTENIMIENTO Y GESTIÓN</p>
<p>Kirol-dartsenak.</p>	<p>16</p>	<p>Dársenas deportivas.</p>
<p>Pantalanetan atrakaleku gehiago jartzea.</p>	<p>100</p>	<p>Incremento dotación de atraques a pantalán.</p>
<p>Ontziar lurreratzeko guneak berritzea.</p>	<p>1</p>	<p>Remodelación de varaderos.</p>
<p>3. PORTUETAKO LEHORREKO ALDEA ETA UR AZALA GARBITU ETA INSTALAZIOAK ZAINTEZEA</p>		<p>3. LIMPIEZA SUPERFICIES TERRESTRES Y DE LÁMINA DE AGUA Y VIGILANCIA DE LAS INSTALACIONES PORTUARIAS</p>
<p>1. EAeko portuetako lehorreko aldeak eta ur-azala garbitzea.</p>		<p>1. Limpieza de superficies terrestres y lámina de agua de los puertos de la CAPV.</p>
<p>Garbitzeko eta hondakinak biltzeko kontratuak.</p>	<p>3</p>	<p>Contratos de limpieza y recogida residuos.</p>
<p>2. Portuetako portu-instalazioak zaintzea.</p>		<p>2. Vigilancia de instalaciones portuarias en puertos.</p>
<p>Zaintzarako kontratuak.</p>	<p>2</p>	<p>Contratos de vigilancia</p>
<p>4. PROFESIONALAK ETA GRADUATU-ONDOKOAK ITSAS GAJETAN PRESTATZEA ETA ITSAS GAI AK SUSTATZEA</p>		<p>4. FORMACIÓN DE PERSONAS PROFESIONALES Y POSTGRADUADAS EN EL SECTOR MARÍTIMO Y FOMENTO DEL SECTOR MARÍTIMO</p>
<p>1. Itsas Ardularitza Eskolaren jarduketak.</p>		<p>1. Actuaciones de la Escuela de Administración Marítima.</p>
<p>Itsas arloko profesionalak birziklitzeko jardunaldiak.</p>	<p>3</p>	<p>Jornadas para el reciclaje de los y las profesionales del sector marítimo.</p>
<p>Itsas Garraioaren Sektoreko Argitalpenak.</p>	<p>2</p>	<p>Publicaciones Sector del Transporte Marítimo.</p>
<p>2. Diru-laguntza EHUrentzat.</p>		<p>2. Subvención a la Universidad del País Vasco (UPV).</p>
<p>«El Saltillo» ontziaren mantentzea.</p>	<p>1</p>	<p>Mantenimiento del buque «El Saltillo».</p>
<p>Itsas Zuzenbideari buruzko nazioarteko Biltzarra.</p>	<p>1</p>	<p>Congreso Internacional de Derecho Marítimo.</p>
<p>3. Lankidetzaz beste unibertsitate batzuekin.</p>		<p>3. Colaboración con otras universidades.</p>
<p>Diru-Laguntza Deustoko Unibertsitateari Itsas eta Portu Enpresen Kudeaketako eta Itsas Zuzenbideko Master-erako eta bestelako ekintzetarako.</p>	<p>1</p>	<p>Subvención a la Universidad de Deusto para el Master en Gestión de Empresas Marítimo- Portuarias y Derecho Marítimo y otras actividades.</p>
<p>4. Itsas/Portu sektorea sustatzen duten elkarteentzako diru-laguntza.</p>		<p>4. Subvención a Asociaciones para promoción del Sector Marítimo/Portuario.</p>
<p>Nautikako ikasleek praktikak egitea</p>	<p>1</p>	<p>Prácticas de alumnado de náutica.</p>
<p>Itsas sektoreko erabiltzaileen eta profesionalen elkarteak.</p>	<p>4</p>	<p>Asociaciones de personas usuarias y profesionales del sector.</p>
<p>Euskal Herriko portuak sustatzea.</p>	<p>2</p>	<p>Promoción de los puertos vascos.</p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>5. PORTU KUDEAKETAREN ETENGABEKO HOBEKUNTZA</p> <p>1. Portuetan indarrean dauden planak berrikustea eta onartzea.</p> <p style="padding-left: 20px;">Portuetako planak eta bitarteko materialak berrikustea.</p> <p style="padding-left: 20px;">Portuetan simulakroak eta ariketak egitea.</p> <p>2. Portuetan itsas kutsadurari aurre egiteko ekipamenduak berrikusi eta eguneratzea.</p> <p style="padding-left: 20px;">Berrikusketa kopurua</p> <p>3. Praktikajea</p> <p style="padding-left: 20px;">Praktikajea</p>	<p style="text-align: center;">15</p> <p style="text-align: center;">2</p> <p style="text-align: center;">1</p> <p style="text-align: center;">1</p>	<p>5. MEJORA CONTINUA DE LA GESTIÓN PORTUARIA</p> <p>1. Revisión y Aprobación de los planes vigentes en los puertos.</p> <p style="padding-left: 20px;">Revisión de planes de los puertos y de los medios materiales.</p> <p style="padding-left: 20px;">Realización de simulacros y ejercicios en los puertos.</p> <p>2. Revisión y actualización de equipos respuesta de contaminación marítima en los puertos.</p> <p style="padding-left: 20px;">Cantidad de revisiones</p> <p>3. Practicaje</p> <p style="padding-left: 20px;">Practicaje</p>

PROGRAMA

5411 NEKAZARITZA ETA ARRANTZA ALORREKO IKERKETA ETA GARAPENA

ARDURADUNA

ELIKADURA, LANDA GARAPENA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA
ELIKAGAIEN KALITATE ETA SUSTAPENERAKO ZUZENDARIA

PROGRAMA

5411 INVESTIGACIÓN Y DESARROLLO AGROPESQUERO

RESPONSABLE

ALIMENTACIÓN, DESARROLLO RURAL, AGRICULTURA Y
PESCA
DIRECTOR DE CALIDAD Y PROMOCIÓN ALIMENTARIAS**MEMORIA**

Ikerketa, Garapena eta Berrikuntza jasotzen dira programa honetan, eta helburua da EAEko nekazaritzako elikagaien eta basoen sektoreek bilakaera jasagarria izatea, epe ertain eta luzera. Helburu hori betetze aldera, ikerketa estrategikorako gaitasuna eta, ondorioz, ezagutza teknologikoa areagotuko dira, eta ikertzaileen eta teknologiaren esparruan lan egiten dutenen trebakuntza bultzatuko da. Sektorean berrikuntza areagotzea lortu nahi da. Berrikuntza, prozesu bat edo emaitza tekniko bat baino gehiago, gizarte-fenomenoa da, pertsonen eta gizarte osoaren sormena adierazten duena. Kontua ez da «soilik» produktu, teknologia edo prozesu «berriak» hobetzea; jasangarritasunera, kostuak aurreztera eta bizi-kalitatea hobetzera bideratutako eskemak eta jokaerak hartu behar dira kontuan hobekuntzak egiteko, hau da, nekazaritzako elikagaien sektoreak enplegu iraunkorra mantendu behar du.

Programa bat dator «Eusko Jaurlaritzaren 2025rako aurrekontuetako ekonomia jarraibide»ekin, Elikaduraren, Landa Garapenaren, Nekazaritzaren eta Arrantza sailaren Plana eta Programekin, baita EBren 2020rako Estrategiarekin ere; horietan berrikuntza sustatzea eta industria eta lehiakortasun politika babestea lehentasunezko jardun eremuak dira ekonomia suspertzeko prozesuan. Era berean, Euskadiko gastronomiaren eta elikaduraren balio katean digitalizazio adimenduna garatzeko esparru estrategikoarekin bat dator. Esparru hori, era berean, fabrikazio aurreratuko Industria 4.0 ereduaren oinarritzen da.

«Nekazaritza eta arrantza alorreko ikerketa eta garapena» izeneko programa horizontala da nekazaritzako elikagaien esparruan; izan ere, programa horren bidez ahalegin publikoa egin nahi da Euskadin nekazaritzako elikagaien eta arrantzaren balio-kateak pisu handiagoa izan dezan, gaur egun BPGdren % 10,7 baita gutxi gorabehera.

Este Programa que engloba los conceptos de Investigación, Desarrollo e Innovación, tiene como objetivo final propiciar, en el medio y largo plazo, una evolución sostenible de los Sectores Agroalimentario y Forestal Vasco, desde la perspectiva económica, social y medioambiental. Para ello, se favorecerá el incremento de la capacidad investigadora estratégica y, consecuentemente, el del conocimiento tecnológico, y se favorecerá la formación de personal investigador, así como la de personal tecnólogo. Todo ello orientado al crecimiento de la innovación en el sector. La innovación, más que un proceso o un resultado técnico, es un fenómeno social que expresa la creatividad, tanto de las personas, como de la sociedad en su conjunto. No se trata, «simplemente», de hacer mejoras en «nuevos» productos, tecnologías o procesos, se trata de que las mejoras obedezcan a esquemas y modos de hacer orientados hacia la sostenibilidad, ahorro de costes y mejora de la calidad de vida, lo que implica, sobre todo, que el sector agroalimentario pueda mantener un empleo sostenible.

El Programa está en sintonía con las «Directrices económicas presupuestarias para el año 2025 del Gobierno Vasco», con los Planes y Programas del Departamento de Alimentación, Desarrollo Rural, Agricultura y Pesca, así como con la Estrategia 2020 de la UE, en los que el impulso a la innovación y el apoyo a la política industrial y de competitividad son áreas de actuación prioritarias en el proceso de reactivación económica. Asimismo, se alinea con el Marco Estratégico de desarrollo de la digitalización inteligente en la cadena de valor de la gastronomía y alimentación de Euskadi. Este marco, a su vez, se fundamenta en el Modelo Industria 4.0 de fabricación avanzada.

Con el Programa «Investigación y Desarrollo Agropesquero», de carácter horizontal en el área agroalimentaria, se pretende hacer un esfuerzo público en aras a lograr un incremento del peso de la cadena de valor Agroalimentaria y Pesquera en Euskadi que a día de hoy representa aproximadamente un 10,7% del PIB.

Adierazitako azken xede hori lortzera jotzeko, honako helburu instrumental hauek ezarri dira:

1. Teknologia-ezagutza handitzeko eta nekazaritzako elikagaien sektorearen beharrei erantzuteko moduko gaitasun ikertzailea implementatzea, eta sektore horren teknologia etorkizuneko agertokietan garatzeko erakargarria izatea.

AZTI, NEIKER eta LEARTIKER (Basque Research Technology Allianceko kideak) bezalako ikerketa zentrokekin lankidetzan, ikerketa-ildo estrategikoak prestatuko dira eta azpiegiturak modernizatzen lagunduko da, nekazaritzaren, arrantzaren, basogintzaren eta elikagaien industriaren ezagutza zientifikoetan aurrera egin ahal izateko.

Zentro horiekin elkarlanean aritu eta horiei laguntzeaz gain, enpresa eta ikerketa-taldeekin lehenetsuneko harremanak izatea da garrantzitsua: hain zuzen, laneko oinarriko helburuak lehen sektoreko ekoizpenari eta eraldaketaren industriari bideratuta dituzten enpresa eta taldeekin. Helburua lantaldeak eta teknikari taldeak egituratzea da: sailak berak lehenetsuna ematen dien zientzia eta teknologiko emaitzei jarraipena emateko gai izango direnak, eta une bakoitzean zehaztu daitezkeen eremu eta beharrei lotuak: mahastizaintza eta ardogintza, basogintza, bioteknologia, baratzezaintza, elikagai ekoizpena, nekazaritzako elikagaien eta arrantzaren hondakinak, agroekologia, ekoizpenaren jasangarritasuna edo/eta arrantzako baliabideen eraldaketa eta kudeaketa jasagarria.

2. I+G sustatu, transferitu eta hedatzea eta nekazaritzako elikagaien enpresa eta erakundeen lehiakortasuna hobetzea, teknologia garatuz.

Nekazaritzako elikagaien eta arrantzaren sektoreei lotutako ikerketa, garapen eta berrikuntzarako Elikadura eta Landa Garapeneko Sailburuordetzan dauden laguntzak NPBren Plan Estrategikoa (NPBPE) 2023-2027 programazio-aldirakoan sartzen dira.

Lehen sektoreari loturiko alderdietan eta hortik behera dagoen balioen katean berezitatea dauden ikerketa-unitateak egituratzeaz gain, programa honetan, beste ikerketa-zentro, profesionalen elkarte eta sektoreko enpresa batzuetan egiten diren ekimenei lagunduko zaie, nekazaritza eta arrantzako eta elikagaigintzako eremuan berrikuntzarekin lotura duten gaietan berriazko egitasmoak garatzeko.

I+G ekintzak gauzatzeko gaitasun nahikoa duten sektore-eragile guztiei berrikuntza sustatzea eta hedatzea da estrategia, bai eta I+G sailak garatzeko eta sortzeko laguntza ematea ere. Horretarako, proiektuen eta sustatzaileen ezaugarrien arabera laguntzak sustatuko dira.

3. Berrikuntza lankidetzan

Berrikuntza-egitasmoak egiten laguntzea da kontua, eta bultzada ematea lankidetzaz-egitasmo aitzindariak, produktu berriak, merkatu berriak, enpresetan ekoizpen-prozesu berriak eta antolatze sistema berriak garatzeari. Lehen fase batean, enpresak izango dira bultzatzaileak, eta teknologia berritzaileak txertatzea eta egokitzea izango da helburua.

Para avanzar en la consecución del objetivo final enunciado, se definen los Objetivos instrumentales siguientes:

1. Implementación de capacidad investigadora estratégica para incrementar el conocimiento tecnológico y responder a las demandas del sector agroalimentario, así como actuar de elemento tractor en su desarrollo tecnológico en escenarios de futuro.

En cooperación con Centros de Investigación como AZTI, NEIKER y LEARTIKER (miembros de Basque Research Technology Alliance), se trabajará en líneas de investigación estratégicas y se apoyará la modernización de infraestructuras para avanzar en el conocimiento científico en las áreas agraria, pesquera, forestal y alimentaria.

Además de colaborar y apoyar a los mencionados Centros, resulta prioritario mantener relaciones preferentes con empresas y grupos de investigación cuyos objetivos básicos de trabajo estén orientados a la producción primaria y a la industria de la transformación, con el objetivo de estructurar equipos humanos y técnicos capaces de proveer en continuidad resultados científico-tecnológicos priorizados por el propio Departamento y vinculados a las áreas y necesidades que se puedan determinar en cada momento: vitivinicultura, forestal, biotecnología, horticultura, producción alimentaria, residuos agroalimentarios y pesqueros, agroecología, sostenibilidad de la producción y/o transformación y gestión sostenible de los recursos pesqueros.

2. Promoción, Transferencia y Difusión de la I+D para la mejora de la capacidad competitiva de empresas y organizaciones agroalimentarias.

Las ayudas existentes en la Viceconsejería de Alimentación y Desarrollo Rural en materia de Investigación, Desarrollo e Innovación en los sectores agroalimentario y pesquero se encuadran en el Plan Estratégico de la PAC (PEPAC) aprobado para el periodo de programación 2023-2027.

Independientemente de la estructuración de Unidades de Investigación especializadas en los aspectos relacionados con el Sector Primario y su cadena de valor hacia abajo, se apoyarán desde este programa iniciativas en otros Centros de Investigación, asociaciones profesionales y empresas del sector que desarrollen proyectos específicos en materias relacionadas con la innovación en el área agropesquera y alimentaria.

La estrategia es la promoción y expansión de la Innovación a la totalidad de los y las agentes sectoriales con capacidad suficiente para ejecutar acciones de I+D, así como el apoyo en el desarrollo y creación de departamentos de I+D. A estos efectos, se promoverán ayudas en función de los proyectos y de las características de quien las impulsan.

3. Innovación en Cooperación

Se trata de apoyar la elaboración de proyectos de innovación, animando al desarrollo de proyectos piloto cooperativos, nuevos productos, nuevos mercados, nuevos procesos productivos y nuevos sistemas organizativos en empresas que, en una primera fase, actúen como tractoras, de manera que incorporen y adecuen tecnologías innovadoras.

Horrela, lankidetzako berrikuntza-proiektuak bultzatzen dira, 2023-2027 programazio-aldirako onartutako NP Bren Plan Estrategikoa (NPBPE) aurreikusitako laguntzen esparru-araudiak ezartzen duenaren arabera kudeatuko direnak.

4. Ikertzaileak trebatzea, honako hauen bitartez:

Laguntzen programa bat deituko da prestatzen ari diren ikertzaileentzat eta teknologoentzat. Prestakuntza-ereduak hobetu daitezten sustatu nahi da, pertsona horiek nekazaritza, arrantza eta basogintza sektoreetako ikerketa eta garapenari lotutako zereginetan lan egin dezaten. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko unibertsitate-zentroetan eta ikerketa-zentroetan emango da prestakuntza hori.

Prestatzen ari diren ikertzaileentzako laguntzak orain arte bezala emango dira, hau da, gradu edo master bateko titulua duten pertsonen emango zaizkie. Horrela, nabarmen egingo du gora nekazaritza, basogintza, arrantza eta elikadura sektoreetan doktore diren pertsonen kopuruak; giza baliabideak prestatuz, gainera, berritzeko aukera gehiago izango dituzte.

5. Laguntza ematea elikagai-alorreko I+G+b-ko erakunderik garrantzitsuenen: EHU-UPV, Artxandako Ostalaritza Eskola eta Basque Culinary Center diru-laguntza izendunen bidez.

